

Urteko memoria 2024

...

Erantzukizun Sozial
Korporatiboa

DTK

Donostiako
Tranbia Konpainia



emakumeen eta gizonen arteko
aizkera berdintasunaren aldeko
erakunde laguntzailea



entidad colaboradora
en igualdad de oportunidades
entre mujeres y hombres



bideberdea

2024ko azaroaren 4an, Dbusek **Bideberdea: etorkizun %100 elektriko eta jasangarritasunerantz** ofizialki aurkeztu zuen, Tabakaleran egindako ekitaldi instituzional batean.

Ekitaldian udal agintariak eta Dbuseko ordezkariak izan ziren, baita hiri mugikortasunarekin eta jasangarritasunarekin lotutako hainbat profesional ere.

Ekitaldian, Dbusek bere flota eraldatzeko eta 2030erako hiri mugikortasun erabat elektriko eta jasangarria lortzeko duen estrategia zehaztu zen.

Bideberdea da Dbusek flota eraldatzeko eta 2030erako Donostian %100 garraio jasangarria izateko egiten duen apustu estrategikoa. Bere helburu nagusia da emisio kutsakorrak murriztea, flota **autobus elektrikoekin** berrituz.

Proiektuak ez du soilik ingurumen jasangarritasunaren aldeko apustua egiten, hirian garraio publikoaren zerbitzuaren eraginkortasuna, irisgarritasuna eta kalitatea hobetzea ere bilatzen du.

Bideberdea proiektuak Dbusek eta Donostiako Udalak garraio publiko garbi, isil eta eraginkorrago batekin duten konpromisoa adierazten du.



Bideberdearen funtsezko helburuak eta onurak

Dbus Zero dira 2024 eta 2030 bitartean gure flotan pixkanaka gehitzen joango diren autobus %100 elektriko berriak. Autobus horiek urtero **8.500 tona CO₂-ren emisioa ezabatuko dute**, eta hiriko airearen kalitatea hobetzen nabarmen lagunduko dute.

Era berean, urtean **3,2 milioi litro erregai aurrezte**a aurreikusten da, eta horrek erakusten du energia modu eraginkorragoan erabiliko dela eta erregai fosilekiko mendekotasuna txikiagoa izango dela.

Gainera, autobus berriek **kutsadura akustikoa %80 murrizten dute**, hirian soinu inpaktua gutxituta eta bidaiarien esperientzia hobetuta, bidaiariek bidaiak erosoago eta isilago egingo baitituzte.



Erantzukizun sozial korporatiboari buruzko urteko memoria – 2024

DTK-ren urteko memoriak **ESK Erantzukizun Sozial Korporatiboko Memoriaren** formatua hartzen du. Dokumentu formal eta publikoa da, eta **kudeaketa etikoari eta garapen iraunkorrari** lotuta DTKren jarduerak dituen inpaktuak eta eragiten **dituen jarduketak eta konpromisoak** jasotzen ditu. Dokumentua diziplina anitzeko ikuspegiarekin egiten da, alderdi ekonomiko, sozial eta ingurumenekoak barne hartuta.

Dokumentua da DTK-k gizarte, ekonomia eta ingurumenarekin lotutako gaiekin eta bere langileekin hartutako konpromisoen isla zuzena eta zehatza, eta **enpresa den neurrian zerbitzuaren kudeaketan eta kalitatean bikaintasuna lortzeko duen erronkaren** baitan sartzen da. Era berean, memoria honek azpimarratu nahi du **DTK-k bere langileekin hartutako konpromisoa**; azken finean, langileak dira zerbitzuari kalitate ematen diotenak eta erabiltzaileen premiei erantzuten dietenak.

ESK-ko lehen memoria 2010eko ekitaldirako idatzi zen eta **oihartzun handia izan izan zuen gizartean eta enpresa munduan**; izan ere, Capital Humano aldizkariak Deusto Business Schoolekin elkarlanean deitutako **Jose Luis Perez Sariaren IX. edizioko saria** eskuratu zuen DTK-k Erantzukizun Sozialarekin lotutako gaiengatik.

Erantzukizun Sozialarekin lotutako gaietan egin duen ibilbidearengatik eta erabiltzaileez, langileez, enpresa hornitzaileez eta gizarteaz oro har erakutsi duen ardura etengabeagatik aukeratu zuten DTK.

Sari horrekin, Konpainiak barruko ekitatearen alde, etika enpresarialaren alde, eta ingurumena bikain zaintzearen alde izandako lorpenak baloratu ziren, horiekin Donostiako hiritarren bizi kalitatea hobetzen nabarmenki laguntzen baitira. Izan ere, horiek izan dira, halaber, Konpainiak 2024ko ekitaldian egindako jardueren printzipio gidariak.

Urteko memoria

Aurkibidea

01 Aurkezpena

8. orrialdea

- Konpainiaren historia
- Misioa, bisioa, balioak eta helburuak
- Administrazio Kontseilua eta Zuzendaritza Taldea

02 2024a zenbakitan

16. orrialdea

- Diru sarrerak eta gastuak
- Zerbitzu adierazleak
- DTK-N balio duten ordainketa moduak
- Bidaia kopurua eta deskontuak titulu motako

03 Herritarren aldeko bokazioa

26. orrialdea

- Mugikortasunaren kudeatzaile integrala (MaaS)
- Lineen eta zerbitzuen hobekuntza
- Sentsibilizazio eta dibulgazio kanpainak
- Kalitate irizpideak
- AENOR-en kalitate ziurtagiria
- Kanpo komunikazioa
- Teknologiak herritarren zerbitzura
- Euskararekiko konpromisoa

04 Elektromugikortasuna

40. orrialdea

- Kotxetegiak elektrifikatzea
- Flota gero eta jasangarriagoa
- Dbizi zerbitzua sendotzea

05 Langileak

46. orrialdea

- Profesionalen etengabeko prestakuntza
- Baldintza eta onura sozial berdinak langile guztientzat
- Laneko osasuna
- Barne komunikazioa eta langileen parte hartzea
- Berdintasun plana

06

Konpromiso soziala

54. orrialdea

- Gizarte ekintza
- Harreman zuzena elkarrekin

07

Ingurumena

58. orrialdea

- Flota
- Emisioen murrizketa
- Energia aurrezpena
- Energia Kudeaketari buruzko ISO 50001 arauaren inplementazioa
- Laneko Segurtasun eta Osasunaren Kudeaketari buruzko ISO 45001 arauaren inplementazioa
- Instalazio efizienteak
- Hondakinen kudeaketa

08

Parte hartzea eta esperientziak trukatzeari

68. orrialdea

- Foroak eta lantaldeak
- DTK-ren bisitak

09


Nortasun bisual korporatiboa

72. orrialdea

- Euskal Herriko hegoaldeko zuhaitz igela
- Donostiako udalaren irudi berria txertatzea
- Dbus
- Grafika diseinu berria autobus elektrikoetan
- Dbizi

01

Aurkezpena



Konpainiaren historia

Donostiako Tranbia Konpainia Donostia hiriko hiri mugikortasuna kudeatzen duen enpresa da.

Tranbia Konpainia 1886an sortutako Sozietate Anonimoa da. 1887ko uztailaren 18an eman zuen Donostiako Tranbia Konpainiak garraio kolektiboko lehen zerbitzua donostiarrentzat. Gaur egun eta 1981az geroztik, kapital soziala Donostiako Udalarena da oso-
osorik.

138 urte baino gehiagoko tarte honetan, Konpainiak bilakaera etengabea izan du, bai eskainitako zerbitzuei dagokienez, bai zerbitzuen kalitateari dagokionez. Zaldiek tiratutako tranbiekin eman zuen lehen zerbitzutik gaur egunera arte, izan ere, gaur egun DTK-k autobus flota irisgarria eta jasangarria du eta bizikleta publikoa da eskaintzen dituen zerbitzuetako bat.

Konpainia osatzen duten pertsona guztien ahaleginari esker, eta Udalari esker, akziodun den heinean, eta baita egunero-egunero garraio publikoaren alde egiten duten erabiltzaileei eta garraio publikoaren bilakaeraren oinarri diren aurrerapen teknologiko handiei esker ere, gaur egun Konpainia hiri garraioko enpresa eraginkor eta aurreratueta bat da Europan. Azpimarratzekoa da Dbus dela duela gutxi Transport Ticketing sarian, Garraio Enpresa Berritzaileenaren kategorian, finalista aukeratu dituzten zazpi enpresetako bat. Garraio publikoko ordainketa sistemak aitortzeko nazioartean ematen den ospe handiko saria da.

2020. urtea mugarri bat izan zen Konpainiaren historian, izan ere, urte horretan aurrekaririk gabeko egoera bat gertatu zen eta gertaera horrek mugikortasuna gelditzea ekarri zuen mundu osoan, gure zerbitzuaren egunerokoan eragina izanda. Hala ere, hurrengo urteetan eskaria berreskuratzen joan da, eta asko handitu da, bai Dbusen, bai Dbizin, eta sendotzen joan da, eta 2024an maila errekorrak lortu dira.

2024an DTKn zenbatutako bidaiak **33.321.324** izan dira, eta horietatik **32.026.966** bidaiak Dbusen zenbatu dira, eta 1.294.358 bidaiak Dbizin.

Hurrengo taulan ikus daiteke zer igoera izan duen zerbitzu bakoitzak 2024an, 2023ko datuekin alderatuta:

	2023	2024	Igoera
Dbizi	945.642	1.294.358	+ 348.716
Dbus	29.599.122	32.026.966	+ 2.427.844
TOTAL	30.544.764	33.321.324	+2.776.560



Tranbiatik autobusera, autobusetik bizikletara: Dbuseko flotaren bilakaera.

Konpainiak zaldiek tiratutako 6 kotxe ireki eta 6 kotxe itxirekin hasi zuen bere ibilbidea, eta bere eskaintza laster 3 lineakoa izatera pasatu zen.



1887 - 1897

Konpainia zaldiek eta mandoek tiratutako tranbiekin hasi zen zerbitzua ematen.



1897

Trakzio elektrikoko lehen tranbia sartu zen.



1948

Lehen trolebusak hasi ziren ibiltzen Donostiatik.



1964

Bi pisuko trolebusek ibilgailu elektrikoen flota osatu zuten.



1973

Trolebusak behin betiko kendu ziren eta flota modernoago jarri zen.



2018

Elektromugikortasun proiektu teknologikoen urtea izan zen. Autobus elektrikoa, bere aldaera guztietan, protagonista izan zen Konpainiaren egunerokoan.



2020

Dbizi DTKren zerbitzu eskaintzan sartu zen.



2024

Lehen Dbus ZERO autobusak iritsi ziren.

Dbizik, bizikletak alokatzeko Donostiako Udalaren sistemak, lau urte bete ditu, Konpainiak eskaintzen dituen zerbitzuetako bat izaten. 2024a izan da ibilgailu pribatuaren alternatiba indartsu gisa finkatu den urtea, Dbusen eskaintza osatuta, aurreko sistemarekin alderatuta %27 inguruko hazkundera izan du-eta.

2024ko abuztuan erregistratu da abonatu kopururik handiena; **13.508 erabiltzaile**, erregistratu dira. Horrek esan nahi du sisteman **%24 abonatu gehiago** dagoela, iazko daturik onenarekin alderatuta (10.879 abonatu 2023ko irailean).

Misioa, bisioa, balioak eta helburuak

Misioa

“Donostiako Udalak Donostiako Tranbia Konpainiaren bidez ematen du hirian bidaiarien garraio publikoaren zerbitzua. Garraio zerbitzuetan liderrak izateko eta zerbitzu lehiakorra eskaintzeko ahaleginetan etengabe egiten ari garen lanaren funtsezko helburua da gaur egun ditugun eta etorkizunean izan ditzakegun

erabiltzaileek **mugitzeko dituzten premiei ahalik eta gehien erantzutea, kalitate handiko zerbitzua** eta informazio praktikoa eskainita, lehiatzeko moduko kostuekin eta gure ingurumenaren irankortasuna bultzatuta”.

Etorkizuneko bisioa

“Donostiako Tranbia Konpainiak **gure hiriko mugikortasunaren alorrean liderra izan nahi du**, bai eskaintzen dituen zerbitzuengatik bai zerbitzu horien kalitatearengatik. Hainbat neurri garatuko ditugu gizarteak gure enpresaren gainean duen irudia hobetze aldera, irudi berri bat emanda, hain zuzen ere

gizartean aktibo eta erantzule izaten jarraitzen duen eta garapena, hiriarena, gizartearena, ingurumenarena, erabiltzaileena eta bere langileena, bai eta berarekin harremanetan dauden beste agenteena ere, bultzatzen duen enpresarena”.

Helburu soziala

“Konpainiaren helburua da pertsonen eta salgaien mugikortasunerako jarduketak kudeatzea, dela joan-etorrietarako bitartekoak ezartzean, dela

informazioaren hobekuntzari edo hainbat bitarteko erabiltzeari lotutako jarduerak garatzean”.



Balioak

DTKren balioak dira Konpainiaren langile guztiek jarraibide dituzten zutabeak.

Bezeroarengana eta zerbitzuen hobekuntzara bideratuta egotea

- 1) Erabiltzaileen arreta hobetzeko politikak eta autobusaren erabilera bultzateko kanpainak.
- 2) Gure zerbitzuen etengabeko hobekuntza, bai eskainitako lineen kopuruan, bai ibilbideen denboretan, puntualtasunean eta erregularitasunean, segurtasunean eta erosotasunean.
- 3) Prebentzio eta segurtasun politikak.

Langileak

- 1) Langile guztien prebentzioa eta segurtasuna zaintzen ditugu.
- 2) Konpainian aukera berdintasunaren eta gardentasunaren inguruko irizpiderik zorrotzenak betetzen direla zaintzen dugu.
- 3) Enpresaren barruan gizonek eta emakumeek eskubide eta aukera berberak izatea bermatzen dugu.

Ingurumena

- 1) Ingurumenaren arloan indarrean dauden araudi eta legedi guztiak betetzeaz arduratzen gara, eta haratago joaten saiatuko gara, jarrera proaktiboa hartuz.
- 2) Garapen iraunkorra eta ingurumena errespetatuko duena defendatzen dugu, gure autobusen barruan azken aurrerapen teknologikoak ezarriz eta erabiliz.

Kalitatea

- 1) Etengabeko hobekuntza, prebentzio neurriak hartzera zuzenduak, neurri zuzentzaileak hartzera baino gehiago.
- 2) Erabiltzaileak gure zerbitzuarekin gusturago sentiaraztera eta haiengan gogobetetze handiago sortzera orientatuta egotea, betiere prezio lehiakorrek erabiliz.
- 3) Eskainitako zerbitzuen barruan bikaintasuna lortzea.

Helburuak

DTK-k ezarritako **helburuak** hiru taldetan banatzen dira:

Garraio Publikoa bultzatzea

Garraio Publikoa bultzatzea, hau da, garraio publikoa eraginkorra izaten eta mugitzeko beste modu batzuekin bateragarri izaten laguntzea.

Zerbitzua hobetzea

Herritarrentzako zerbitzua hobetzea, auto pribatuaren erabilera alternatiboak erakargarriagoak izan daitezen.

Konpainiaren barruko gestioa hobetzea

Konpainiaren barruko gestioa hobetzea erabilgarri dauden baliabideak optimizatzeko eta Konpainiako langile guztien inplikazio, konpromiso eta gogobetetze maila handitzeko.



Administrazio Kontseilua eta Zuzendaritza Taldea

Administrazio Kontseilua da DTKren gobernu organo nagusia.

Presidentea

Eneko Goia Laso jauna
(Donostiako alkatea)

Presidenteordea

Olatz Yarza Garagorri andrea
(Mugikortasun eta Garraio Jasangarriko zinegotzia)

Kontseilukideak

Kerman Orbegozo Uribe jauna
Maria Jesus Idoeta Madariaga andrea
Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andrea
Miren Albistur Garmendia andrea
Ane Oyarbide Ochoa andrea
Carles Fernandez Marmol jauna
Victor Jose Lasa Briz jauna
Fidel Arizmendi Oyarzabal jauna
Francisco Javier Gonzalez Penas jauna
Jesus Maria Mur Urretavizcaya jauna

Idazkaria

Nagore Sarasola Otermin andrea

Idazkariordea

Eva Ugarte Orozco andrea

Hauek osatzen dute Dbus-eko zuzendaritza taldea

Igor Gonzalez Aranburu jauna
(Zuzendari Gerentea)

Javier Vallejo Illarramendi jauna
(Eragiketak, Plangintza eta Zerbitzuak
Arloko Burua)

Eduardo Gonzalez Lopez jauna
(Zuzendari Teknikoa)

02

2024a zenbakitan





Dbuseko datuak

32.026.966

Bidaia kopurua

32

Eguneko lineak

9

Gautxori lineak

141

Autobus kopurua

%100

Plataforma baxuko autobusak

%100

Aire girotua duten autobusak

593,68

Batez besteko plantilla



Dbiziko datuak

1.294.358

Bidaia kopurua

356.059

Bizikleta mekanikoz egindako bidaiak

589.583

Bizikleta elektrikoz egindako bidaiak

6,29

Bizikleten batez besteko erabilera

12.334

Abonatu kopurua (abendua)

%37,66

Bizikleta mekanikoen erabilera

%62,34

Bizikleta elektrikoen erabilera

69

Geltokien kopurua


Hau da 2024an Dbuseko lineek izan dute erabileraren rankinga:

Linea	Bidaia kopurua
13-ALTZA	4.011.171
28-AMARA-OSPITALEAK	3.975.135
5-BENTA-BERRI	2.991.478
17-GROS-AMARA-MIRAMON	2.367.007
26-AMARA-MARTUTENE	1.973.790
33-LARRATXO-INTXAURRONDO-BERIO	1.917.181
14-BIDEBIETA	1.318.602
25-BENTA BERRI-AÑORGA	1.147.568
31-INTXAURRONDO-OSPITALEAK-ALTZA	1.143.357
9-EGIA-INTXAURRONDO	1.141.651
29-HEGO INTXAURRONDO SUR	945.621
19-AIETE-BERA BERA	932.232
24-ALTZA-GROS-ANTIGUO	884.074
27-ALTZA-INTXAURRONDO-ANTIGUO	865.022
8-GROS-INTXAURRONDO	827.254
18-SEMINARIOA	688.939
16-IGELDO	634.168
45-EST.RENFE-BUS-ANTIGUO-AIETE	611.305
40-GROS-ANTIGUO-IGARA	480.703
36-SAN ROKE-ALDAKONEA	436.901
21-MUTUALITATEAK-ANOETA	436.840
41-GROS-EGIA-MARTUTENE	405.606
23-ERRONDO-PUIO	299.997
32-PUIO-ERRONDO	295.499
37-RODIL-ZORROAGA	290.909
35-ANTIGUO-AIETE-OSPITALEAK	279.819
42-ALDAPA-EGIA	163.088
38-TRINTXERPE-ALTZA-MOLINAO	125.572
46-MORLANS	107.595
43-ANOETA-IGARA	67.059
B4-AMARA-RIBERAS-MARTUTENE	36.079
B1-BENTA BERRI-BERIO-AÑORGA	33.828
B6-ALTZA	33.058
47-ATOTXA-ERREKA (*)	30.042
B10-ZUBIAURRE-BIDEBIETA-BUENAVISTA	27.351
B3-EGIA-INTXAURRONDO	25.730
TB6-ULIA	23.179
B8-MIRACONCHA-BENTA BERRI-SEMINARIOA	18.771
B2-AIETE-BERA BERA	14.146
B9-AMARA-PUIO-ERRONDO	13.602
TB7-ATOTXAERREKA-PASEO FARO (*)	5.446
B7-IGELDO	591
39-URGULL	-
GUZTIRAKOAK	32.026.966

Hurrengo taulan, egindako bidaien bilakaera ikus daiteke, hilez hil.

	2023	2024	Bidaia kopuruaren igoera	Bidaien igoeraren %
Urtarrila	2.537.385	2.271.002	266.383	%11,73
Otsaila	2.522.853	2.191.991	330.862	%15,09
Martxoa	2.477.880	2.546.146	-68.266	%-2,68
Apirila	2.551.738	2.123.259	428.479	%20,18
Maiatza	2.720.621	2.520.608	200.013	%7,94
Ekaina	2.525.204	2.496.906	28.298	%1,13
UZTAILA	2.776.959	2.468.830	308.129	%12,48
Abuztua	2.817.822	2.621.695	196.127	%7,48
Iraila	2.765.872	2.657.183	108.689	%4,09
Urria	2.912.401	2.610.029	302.372	%11,59
Azaroa	2.735.865	2.614.137	121.728	%4,66
Abendua	2.682.366	2.477.335	205.031	%8,28
GUZTIRA	32.026.966	29.599.121	2.427.845	%8,20


Ondorengo grafikoan adierazten da bidaien eskaerak azken 10 urteetan izan duen bilakaera:



Dbiziri dagokionez, bidaiek 2024an izan duten bilakaera nabarmena izan da eskariek aurreko ekitaldiarekin alderatuta izan duten igoera handiagatik. Hala, 2024an **1.294.358 bidaia**, erregistratu dira, eta pasa den urtean, berriz, 945.642 erregistratu ziren, hau da, bidaia kopurua **%27** inguru **igo** da.

	2023	2024	Bidaia kopuruaren igoera	Bidaien igoeraren %
Urtarrila	48.059	89.199	41.140	%85,60
Otsaila	55.544	86.706	31.162	%56,10
Martxoa	67.815	97.251	29.436	%43,41
Apirila	58.791	112.344	53.553	%91,09
Maiatza	75.742	120.996	45.254	%59,75
Ekaina	80.683	120.658	39.975	%49,55
Uztaila	76.449	130.540	54.091	%70,75
Abuztua	88.424	124.451	36.027	%40,74
Iraila	114.453	121.202	6.749	%5,90
Urria	121.283	115.542	-5.741	%-4,73
Azaroa	83.996	105.466	21.470	%25,56
Abendua	74.403	70.003	-4.100	%-5,91
GUZTIRA	945.642	1.294.358	348.716	%36,88

Grafiko honetan erakusten da Dbizik 2021ean abian jarri zenetik bidaia kopuruari dagokionez izan duen bilakaera. Orduz geroztik, zerbitzuak hazkunde progresiboa izan du, eta hirian mugikortasun jasanagarriko alternatiba gisa sendotu da.



Hurrengo taulan ikusten da 2024an Dbiziko abonatuak izan duten bilakaera.

	URTEKOAK		NOZBEHINKAKOAK		GUZTIRA
Urtarrila	9.577	%88,45	1.250	%11,55	10.827
Otsaila	9.669	%89,81	1.097	%10,19	10.766
Martxoa	9.984	%85,66	1.672	%14,34	11.656
Apirila	10.235	%86,61	1.582	%13,39	11.817
Maiatza	10.421	%84,26	1.947	%15,74	12.368
Ekaina	10.441	%82,25	2.253	%17,75	12.694
Uztaila	10.812	%75,62	3.484	%24,37	14.296
Abuztua	11.009	%81,51	2.498	%18,49	13.507
Iraila	10.906	%82,54	2.307	%17,46	13.213
Urria	11.223	%86,51	1.750	%13,49	12.973
Azaroa	11.238	%86,51	1.753	%13,49	12.991
Abendua	11.061	%89,68	1.273	%10,32	12.334

Diru sarrerak eta gastuak

Oraindik ere tarifetan egiten den %50eko deskontuak asko baldintzatzen du emaitza ekonomikoa, deskontu horrek gutxi gorabehera 9,1 milioi euroko inpaktu du eta. 2024an Udalak 1,099 euroko ekarpena egin du bidaia bakoitzeko, aurreko urtearekin alderatuta %5,42 gutxiago.

2024an eragiketen ustiapenagatik izandako diru sarrerak %10,96 igo dira, 16.349.163 eurora arte, batez ere eskaerak gora egin duelako, publizitatearen diru sarrerak bilakaera positiboa izan dutelako eta Next Generation proiektuak finantzatzeko Europar Batasunetik dirulaguntzak etorri direlako.

Dbusek 2024an eskainitako kilometro kopuruak ia ez da aldatu, 7.086.190 kilometro izan dira eta.

Udalak kontuak orekatzeko egin duen ekarpena, aurreko urteko ekarpenarekin alderatuta, %2,3 handitu da, 35.190.672 eurora arte.

Garrantzitsua da esatea Udalak Estatuaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jasotzen dituela, eta horiei esker finantzatu ahal izan dela Dbusen Mugi sistemak azken urtean izan duen %50eko murrizketaren parte bat, zeinak 9,1 milioi euroko inpaktua izan duen, kalkuluen arabera. Laguntza horiek, 2023ko ekitaldian bezala, 7.366.338 eurokoak izan dira (5.291.313 euro Estatuak emanda, eta 2.075.025 euro Eusko Jaurlaritzak emanda).

DIRU SARRERAK	2024	2023
Diru sarrerak zerbitzuak emateagatik	13.345.789,14 €	12.326.447,35 €
I+G proiektuak	868.622,30 €	535.878,63 €
Diru sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste diru sarrera batzuk	2.134.751,56 €	1.876.447,80 €
Diru sarrera finantzarioak	35.162,90 €	87,08 €
Udalaren ekarpena	35.190.672,49 €	34.380.250,02 €
DIRU SARRERAK GUZTIRA	51.574.998,39 €	49.119.110,88 €

GASTUAK	2024	2023
Hornidurak	5.095.508,72 €	5.022.727,50 €
Pertsonen gastuak	38.336.349,68 €	36.454.249,77 €
Beste ustiapen gastu batzuk	4.819.486,27 €	4.345.198,52 €
Ibilgetuaren amortizazioa	3.293.907,82 €	3.263.014,57 €
Emaitza finantzarioa	29.745,90 €	33.920,52 €
GASTUAK GUZTIRA	51.574.998,39 €	49.119.110,88 €

Zerbitzu adierazleak

Puntualtasun indizea Dbusen

2024an Dbusek **%95eko** puntualtasun indizea lortu du.. Indizea oraindik positiboa bada ere, eta Estatuko batez besteko indizea baino altuagoa bada ere, lineen efektibitatea txikiagoa izan da ordutegien betetzeari dagokionez, **eskariaren igoera eta abiadura mugak** ezartzen dituen 970/2020 Errege Dekretua indarrean jarri eta Donostiako udalerrian aplikatzearen ondorioz.

Zerbitzu orduak Dbusen

2024an Dbusek **7.086.190** kilometro egin ditu, hiriko auzoak konektatzeko dituen eguneko eta gaueko 41 lineekin, linea batzuetan maiztasunak hobetu eta ibilbideak luzatu dira-eta.

Zerbitzu kilometroak Dbusen

2024an Dbusek **7.086.190** kilometro egin ditu, hiriko auzoak konektatzeko dituen eguneko eta gaueko 41 lineekin, linea batzuetan maiztasunak hobetu eta ibilbideak luzatu dira-eta.


Dbusen abiadura komertziala

2024an, batez besteko abiadura komertziala **16,60 km/h-koa** izan da, 2023an erregistratutako 16,68 km/h-ko abiadura baino txikiagoa. Dbuseko zerbitzuen zirkulazio bide nagusiei eragiten dieten abiadura muga berrien eta zerbitzu eskariak izan duen igoeraren ondorioz gertatu da abiadura jaitsiera hori.



Bidaiei iraupena Dbizin

2024an, Dbiziko bizikletetan egindako bidaia gehienek **15 minutu baino gutxiagoko** iraupena izan dute, eta horien atzetik **15-30 minutuko** iraupena duten bidaiek daude. Datu horiek erakusten dute, beraz, bizikletak ahalik eta gehien txandakatzeko helburua betetzen ari dela.



DTK-N balio duten ordainketa moduak

Dbusen

Dbusek hainbat bidai titulu baliodunak ditu, paperezko noizbehinkako bidai txartelaz eta EMV banku txartelen bitartezko ordainketaz gain. Mugi txartela guztiak, hau da, txartel anonimoak zein pertsonalizatu arruntak eta talde berezienak, eta Lurraldebus txartela dira Dbusen bidaiatzeko balio duten bidai titulak. 2017az geroztik, **BAT txartela (Araba) eta BARIK txartela (Bizkaia) ere erabil daitezke** Dbuseko autobus lineetan, bidaia ordaintzeko modu gisa. Horren bidez, halaber, EAEko lurralde bidaiatzeko oztopoak murrizten dira.

Mugi txartel anonimoa kenduta, Lurraldebusen eta Mugiko txartel guztiak **pertsonalak eta eskualdaezinak** dira, eta deskontu progresiboak dauzkate erabilera kopuruen arabera, eta hobariak ere txartela kargatzean, kolektibo bereziko pertsonentzat. BAT eta BARIK txartelek Mugi txartelarekin egindako lehen bidai tarteagatik lortzen den deskontu berbera dute.

Horrez gain, 2019ko abendutik Visa, Mastercard edo American Express banku txarteekin ordaindu daiteke, dela txartel fisikoarekin, dela txartel digitalarekin.

Azpirarratzekoa da, halaber, 2023ko irailetik aurrera Dbusek bidaia txartelak QR kodearekin ordaintzeko aukera ezarri duela autobusetan, eta erosketan iOS eta Androiden eskuragarri dagoen Dbusen app ofizialaren bidez egin daitekeela. Hauek dira lau garraio titulu berriak:

- **30 minutuko QR txartela, egunekoa:** eguneko nahi beste zerbitzutan erabil daiteke, erosi eta hurrengo 30 minutuetan. Transbordoak egiten uzten du. Prezioa 1,85€ da.
- **30 minutuko QR txartela, gauekoa:** aurreko kasuan bezala, garraio titulu hau erosleak nahi beste gaueko zerbitzutan erabil dezake, erosi eta hurrengo 30 minutuetan. Prezioa 2,50€ da, eta transbordoak egiten ere uzten du.
- **24 orduko QR txartela:** Dbuseko autobusetan mugarik gabe bidaiatzeko aukera ematen du 24 orduz, bai eguneko zerbitzuetan, bai gaueko zerbitzuetan, eta 6 €-ko prezioa dauka.
- **48 orduko QR txartela:** Dbuseko autobusetan mugarik gabe bidaiatzeko aukera ematen du 48 orduz, eta eguneko zein gaueko zerbitzuetan ere bai. Prezioa 10€ da.

Txartel horiek erosten diren unean ezartzen den denboran nahi beste bidaiatzeko aukera ematen dute, eguneko edo gaueko modalitatean 30 minutuko txarteletan, eta bi modalitateetan 24 eta 48 ordukoetan.

Gainera, turistek eta bisitariek garraio txartel espezifikoak dituzte, Donostian egiten dituzten bidaia erosago egiteko. **Basque Card**, probintzia osoan balio duena, eta **Donostia Card**, Dbusen bakarrik balio duena dira txartel espezifiko horiek.

Dbizin

Dbizik bi abonua mota ditu: **arrunta**, hamabi hilabete irauten duena; eta **noizbehinkakoa**, hilabete bateko iraupena duena. Abonu arruntak banakakoak edo taldekoak izan daitezke. Taldeko abonua familientzat,

taldeentzat edo enpresentzat pentsatuta daude nagusiki (2-5 pertsona). Noizbehinkako abonua, berriaz, banakakoak baino ezin dira izan.



Mugi Txartel Arrunta



Lurraldebus Txartela



Mugi Txartel Anonimoa



Txartel Anonimoak



Mugi Giza Txartela



Turista Txartelak

Bidaia kopurua eta deskontuak titulu motako

Dbusen


2024an, Dbusek bidaiak kontakturik gabeko ordainketa moduak erabiliz ordaintzea sustatzen jarraitu du, eta horretarako kanpainak egin ditu, ordainketak bidaia txartelen eta EMV banku txartelen bidez egitea sustatzeko, edo QR kodea duten txartelen bidez ordaintzeko, 2023ko irailetik Dbusen garraio titulu gisa ezarrita baitago.

2024an erregistratutako bidaien **%93,16** noizbehinkako bidaia txartelaren tarifyan deskontua duen txartelen

batekin ordaindu ziren, hau da, erabilgarri zeuden garraio txartelak erabili dira batez ere (Lurraldebus, MUGI, SS-Card eta BAT / BARIK). Bidaien **%6,48** baino ez dira egin noizbehinkako bidaia txartela ordainduta, eta 2019an, berriz, %8,20 bidaia ordaindu ziren horrela.

2024an noizbehinkako bidaia txartelarekin egin diren bidaien **%48,08** eskudirutan ordaindu ziren eta **%51,92** EMV banku txartelekin.

2023an, bidaiarien %93,16k deskontuak izan zituzten egindako bidaia bakoitzeko



Deskontu horien onurez gehien baliatzen diren taldeak honako hauek dira:



Gazteak



Familia ugariak



Soziala, Desgaitasuna duten pertsonak eta 65 urtetik gorakoak

Kolektibo horiei BAT eta BARIK txartelekin ordaindu behar zaizkie, horiek %45eko deskontua izan baitzuten noizbehinkako txartelaren tarifyarekiko. 2024an txartel horiekin egindako bidaiek indarra hartu dute, eta

222.473 bidaia zenbatu dira, aurreko urtean baino %25,37 gehiago, probintzien arteko mugikortasuna malgutzeari esker.

Dbizin

Honako taula honetan, hilean egindako bidaien banaketa ageri da, bizikleta motaren arabera:

2024	Elektrikoa		Mekanikoa		Guztira
Urtarrila	67.450	%75,62	21.749	%24,38	89.199
Otsaila	66.601	%76,81	20.105	%23,19	86.706
Martxoa	74.791	%76,91	22.460	%23,09	97.251
Apirila	86.723	%77,19	25.621	%22,81	112.344
Maiatza	93.004	%76,87	27.992	%23,13	120.996
Ekaina	92.510	%76,67	28.148	%23,33	120.658
Uztaila	96.345	%73,80	34.195	%26,20	130.540
Abuztua	93.414	%75,06	31.037	%24,94	124.451
Iraila	90.262	%74,47	30.940	%25,53	121.202
Urria	84.856	%73,44	30.686	%26,56	115.542
Azaroa	77.751	%73,72	27.715	%26,28	105.466
Abendua	51.392	%73,41	18.611	%26,59	70.003
GUZTIRA	589.583	%75,33	356.059	%24,67	1.294.358

Hurrengo taulan ikus daitezke Dbizik 2024an izandako datuak, abonua motari dagokionez:


	Arrunta			Nozbehinkakoa	
	Banakakoa	Taldekoa	Guztira	Banakakoa	Guztira
Urtarrila	7.367	2.211	9.578	1.250	10.828
Otsaila	7.422	2.248	9.670	1.097	10.767
Martxoa	7.703	2.317	10.020	1.672	11.692
Apirila	7.844	1.582	9.426	1.582	11.008
Maiatza	7.986	2.451	10.437	1.947	12.384
Ekaina	7.978	2.481	10.459	2.253	12.712
Uztaila	8.275	2.537	10.812	3.484	14.296
Abuztua	8.438	2.572	11.010	2.498	13.508
Iraila	8.359	2.539	10.898	2.304	13.202
Urria	8.568	2.170	10.738	1.750	12.488
Azaroa	8.565	2.673	11.238	1.750	12.988
Abendua	8.411	2.650	11.061	1.273	12.334

Aurreko koadroa aztertuta ikusten da hilabete baterako diren banakako abonua arruntak goranzko joera izan duela urtean zehar. Bestalde, taldeko abonua arrunta konstante mantendu da aldi osoan zehar, eta zerbitzu horiek aukeratzen dituzten erabiltzaileak errepikariak dira.

Aitzitik, nozbehinkako abonua indibiduala erosten duten erabiltzaileek ez dute eredu errepikaririk. Abonua mota hori, hileko iraupenarekin, uztailean iritsi zen puntu gorenera, eta udako hilabeteetan ere igoera bat erregistratu zen abonua horren kopuruetan.

03

Herritarren aldeko bokazioa



DTK-k, Donostiako hirian hiri mugikortasuneko zerbitzuak ematen dituen enpresa den aldetik, erabiltzaileen beharrak asetzea du helburu nagusi, erabiltzaileak baitira egiten den guztiaren erdigunea, eta helburu horretara bideratzen dute bertako langileek beren lan eta ahalegin guztia.

2024an, DTK-k marketineko eta komunikazioko kanpaina batzuk egin ditu garraio publikoaren erabilera sustatzeko, **bai autobusarena, bai bizikletarena**, Donostian **mugitzeko garraiobide jasangarri eta seguru diren heinean**.

Mugikortasunaren kudeatzaile integrala (MaaS)

Garraio operadoreen erronka nagusia da gainerako garraio moduen alternatiba bihurtzea, sektore publikoak gizartearen interesaren eta onuraren ikuspegitik funtsezko izaten jarraituko duela abiapuntuko premisatzat hartuta.

Testuinguru honetan, eta DTKren jardueraren eremulokalean zentratuta, hau da, Donostia-San Sebastiango eremuan zentratuta, Konpainiaren **negozio ereduak** aurrera egiten du **hiriko mugikortasuna kudeatzen duen enpresaren** kontzepturantz, ingurumeneko politikak, kalitatekoak, marketinekoak eta pertsonetakoak ardatz hartuta, zeinarekin hiriko mugikortasun zerbitzu **iraunkorra, segurua eta kalitaterik handienekoa** eskaini dezakeen, erabiltzaileen esperientzia gero eta hobe izan dadin, eta hiri hobe, bizigarriago, humanoago eta iraunkorrago bat sortzen laguntzeko.

2021eko urrian, Konpainiak lehen urratsak eman zituen Mugikortasuneko Operadore Integral bihurtzeko bidean. Kudeaketa eredu horrek oztoporik gabeko garraio publiko integratutako zerbitzu multimodala eskaintzea du ardatz. **“Mobility as a Service” (MaaS) kontzeptua** da, **dagoeneko Europako hiri garrantzitsuenetako askotan praktikan dagoen kontzeptua**, eta herritarrei ibilgailu pribatua baino erabilerrazago eta eraginkorragoa den aukera bat eskaintzeko asmotan

existitzen diren garraiobideak biltzen duen zerbitzua da, berez.

Gero eta ohikoagoa da hiri **autobusen garraio publikoko enpresak** (udalek ohiko mugikortasun eskaerei erantzuteko gehien erabiltzen duten bitarteko propioa) azkenean **mugikortasuneko hainbat zerbitzu** kudeatzen hastea, bai hirien konfigurazio berriek eskatuta (emisio gutxiko eremuen ezarpena, babes akustikoko zonaldeen ezarpena, etab) bai hiri konfigurazio berri horretatik sortzen diren mugikortasun behar berriek eskatuta (bidaia partekatuak, interoperabilitatea eta intermodalitatea desplazamenduetan, ordainketa bakarrek modua modalitateen zerbitzu guztietarako, eta abar).

“MaaS” kontzeptuan presente dagoen mugikortasun ereduak praktikan jartzearen azken helburua da administrazio publikoek **herritarrei** ibilgailu pribatuaren aurrean lehiatu ahal izango den **mugikortasun zerbitzu integratu bat eskaintzeko** duten beharrari erantzutea, haien eskura mugikortasun irtenbide integratzaileak jarritz, hirian ibilgailu pribatua erabiltzeari pizgarria kentzeko, eta, aldi berean, administrazioak herritarren zerbitzura irtenbide sorta zabal bat jartzeko, integrazio maila handia izan beharko lukeena, kostu lehiakor batean eta kalitate handiarekin.



Lineen eta zerbitzuen hobekuntza

Dbusek Taxibus zerbitzua jarri du abian Atotxaerreka eta Itsasargiko pasealekura

Apirilean, Dbusek **eskaripeko Taxibus** linea berri bat jarri du abian **Atotxaerreka eta itsasargiaren pasealekuko bizilagunentzat**. Horrenbestez, Dbusek bere zerbitzuak zabaldu ditu Itsasargiko pasealekura iristeko, eskuragarri zeuden ibilgailuekin bertara iristeko zailtasunak baitzituen, bizilagunek asko eskatzen zuten zerbitzua izan arren.

47-Atotxaerreka linea ordezkatzan duen linea berriak 60 minutuko maiztasuna du, **asteko egun guztietan, jaiegunak barne**.

Gainera, **bizilagunen eskaerei erantzunez, linearen ibilbidea egokitu da**, zirkularra izan beharrean, norabide biko linea bihurtuta Atotxaerreka eta Antigua artean eta Atotxaerreka eta Añorga artean. Horretarako, 4 geltoki berri gehitu dira Atotxaerrekan, Añorgarako noranzkoan, eta geltoki bat gehitu da Añorga Txikin, Atotxaerreka-Añorgarako noranzkoan; horrela, erabiltzaileak zuzenean iritsi ahal izango dira auzo horretara, hor baitaude zerbitzu nagusiak.

Balidatzeko makina berriak inplementatzea

Dbusek balidatzeko makina zaharrak kendu ditu eta haien ordezkari modelo aurreratuagoko makinak jarri ditu, erabiltzaileei ordaintzeko malgutasun handiagoa eskaintzeko, makina horiek era guztietako sistemekin ordaintzea ahalbidetzen baitute: MUGI txartelak, BAT eta BARIK txartelak, San Sebastian Card eta Basque Card turista txartelak, EMV kontakturik gabeko banku txartelak eta QR kodea duten txartel berriak. Horrela, autobuseko makina guztiek funtzionaltasun berak eskaintzen dituzte, eta ordaintzeko modu gehiago eskaintzen dituzte; beraz, erabiltzaileen bidaiaren esperientzia hobetzen dute.



Markesina adimendun berriak inplementatzea Navilens sistemarekin

Innobus-Tour proiektuaren barruan, Dbusek markesinak berritu ditu, diseinu funtzional eta irisgarria emanez. Elementu bereizgarri gisa, markesina berriek **Navilenssistema** dute. Sistema horren teknologia koloretako QR kodeak erabiltzen ditu, zeinak distantzia handira irakur daitezkeen eta ikusmen desgaitasuna duten pertsonen Donostiako autobus geltokiak modu autonomoan kokatzea ahalbidetzen dien. Lokuzioen bidez, seinaleztapen sistema horrek orientatzea ahalbidetzen du, testuinguruan jarritako informazio eskuragarria lortzeko aukera emanez, hala nola **geralekuaren izena**, bai eta **autobusak iristeko ordua** denbora errealean eta autobusen helmuga ere.

Irismen handiko markagailu bisual horiek, halaber, baliagarriak dira beste dibertsitate funtzional sentsorial edo kognitibo motaren bat duten pertsonentzat, horiek ere orientatu eta informatu baitaitezke irudien eta seinale akustikoen bidez eskura daitezkeen edukiei esker.



Dbusek bidaia txartela QR kodearekin ordaintzeko aukera ezarri du autobusetan

2023ko irailetik, bidaia txartela QR kodearekin ordain daiteke Dbuseko autobusetan. Sistema berritzaile hori Dbusen linea guztietan erabil daiteke, eta bidaia txartela ordaintzeko beste aukera bat da, eskudirutan ordaindu ordez, Donostian autobusez bidaiatzea errazago eta erosoago izan dadin.

Dbusen **app ofizialaren bidez eros daiteke bidaia txartela**; appa iOS eta Androiden dago eskuragarri.

Anezka zerbitzua Illunbeko aparkalekuaren eta Erdialdearen artean

Udan zein Gabonetan, anezka autobusaren zerbitzua jartzen da martxan Illunbeko aparkalekuaren eta hiriko Erdialdearen artean, hirian garraio publikoaren erabilera sustatzeko eta Erdialdean auto partikularren trafikoa arintzeko eta erosoago eta era jasangarriagoan bidaiatzeko.

Gainera, zerbitzu hori eskaintzeko **12 metroko zero emisioko autobus %100 elektriko bat erabiltzen** jarraitu da: **MAN Lions City 12e** modeloa. Ibilgailua Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren Helmugetako Jasangarritasun Turistikorako ezohiko deialdiaren barruan erosi zen, Europako Next Generation funtsek finantzatuta.



Dbiziko bizikleta elektrikoetarako **Geltoki+** sistema abian jartzea

Dbizik **Geltoki+** funtzionalitatea jarri du abian, kalitatezko eta herritarren beharretara egokitutako zerbitzua eskaintzen jarraitzeko helburuarekin.

Bizikleta elektrikoaren atzeko gurgilean giltzarrapo adimendun bat jartzea da, berez, Dbiziren funtzionalitate berri hau ahalbidetzen duen sistema (bizikleta mekanikoetan ez da eskuragarri egongo). Izan ere, sistema horri esker, **bizikletak aparkatzeko** berariaz definitutako **lekuetan aparkatu** ahal izango da. Leku berezi horiek **Dbiziko geltoki jakin batzuen** inguruan kokatuta daude, Dbiziko geltoki horietako aparkaleku guztiak beteta daudenean erabiltzeko.

Geltoki horiek **Geltoki+** izenaz ezagutzen dira, eta hiriko erdigunetik urrunen dauden eta/edo hiriaren goialdeetan dauden auzoetako batzuetan daude, **auzo horietan Dbiziko geltokien arteko distantzia handiagoa baita**. Horrela, beste aukera bat eskaintzen zaie helmugako geltokia beteta aurkitu eta hurbilen duten beste geltokia urrun samar geratzen zaien erabiltzaileei.

Geltoki+ geltokiak hemen daude:

- **Añorga+**
- **Buenavista+**
- **Herrera+**
- **Zubiaurre+**
- **Nornahi+**
- **Atarizar+**
- **Munto+**
- **Andoain+**
- **Tranbia+**
- **Urbia+**
- **Av. Barcelona+**

Horretaz aparte, geltoki horietan arkuak duten aparkalekuak jarri dira bizikletetarako, eta aparkaleku horiek lokailu batzuk dituzte bizikletaren giltzarrapora lotzeko. Bizikleten aparkaleku horiek **erraz identifika daitezke**, izan ere, **kolore berdez** margotuta daude, aparkaleku arruntetatik bereizteko.



Tarteko geldialdia aktibatzea

2024an, Dbizik funtzionalitate berri bat aktibatu du **giltzarrapo adimendunarekin** hornitutako bizikleta elektrikoetan. Aukera horri esker erabiltzaileek 30 minutura arteko geldialdi bat egin dezakete ibilbidean zehar Dbiziko geltoki batean aparkatu beharrik gabe. Zerbitzua erabiltzeko, ezinbestekoa da Dbizi aplikazioaren bidez aktibatzea.

Sistema honen funtzionamenduaren lehen urtean, giltzarrapo adimendunaren 925 erabilera zenbatu dira, Donostian bizikleta publikoaren zerbitzuaren erabiltzaileen harrera onaren eta erabiltzeko malgutasun handiagoaren erakusle.

Familia ugarietarako hobaria Dbizin

Herritarrei zerbitzurik onena eskaintzeko asmoz, Dbizik 2024an **bizikletak erabiltzeagatik hobari** berri bat jarri du abian, abonamendua kontratatzeaz gain. Tarifa horri aplikatzen zaion deskontua **%20koa** da familia ugarien **kategoria orokorrerako**, eta **%50ekoa berezira**.

2024an, abonatuak %3,61ek eskatu dute familia ugariaren abonua, aurreko urteko ehunekoa (%2,42) zertxobait igota.

BEI rako autobusen eta geltokien aurretiazko azterlanak

2024an, DTK-k lanean jarraitu du **BEI sistema-Bus Elektriko Adimenduna** ezarri aurretiko fasean. Sistema **17-Gros-Amara-Miramón** linean ezarriko da, zeina Erdigunea eta Gros auzoa autobus eta Renfe geltokiekin, Amaraekin, Donostiako Ospitale gunearekin eta Miramongo parke teknologikoarekin lotzen dituen linea baita.

Horrenbestez, Diara Design enpresa kontratatu da BEI L17rako geltokien diseinuaren aurretiazko azterketa egiteko. Diseinua geltoki adimentsu eta berritzaile bat eskaintzeko helburuarekin garatu da, DBUSEk sustatutako jasangarritasun, digitalizazio eta irisgarritasun balioekin bat eginda. Diara Designen kontratuaren barruan markesina berriaren diseinua garatzea eta DBUSEn azpiegiturarekin integratzea da.

Gauzak horrela, autobusetarako **errei eksklusiboak** ezarriko dira, garraioa arinagoa izatea eta trafikoko interferentziarik ez izatea bermatzeko. Gainera, **semaforoen lehenetsia** sartuko da, ibilbidearen denborak nabarmen murriztea eta autobusak azkarrago eta eraginkorrago iristea lortzeko.

Ildo beretik, ibilbideak arinagoak direnez, erabiltzaileen egonaldia nabarmen murriztuko da geltokietan, joan-etorrietarako erabili beharreko denbora osoa murriztuko baita. Zerbitzua are gehiago optimizatzeko, maiztasunak ere egokituko dira, autobusak geltokietara erregulartasun handiagoarekin eta bidaiarientzako une egokian iritsiko direla ziurtatzeko.

Irisgarritasunari dagokionez, autobus geltokietan hobekuntza garrantzitsuak egingo dira, modernizatzeko eta, aldi berean hainbat atetatik sartu ahal izateko prestatuko direnez, erabiltzaileen sarrera eta irteera

arintzeko, batez ere puntako orduetan. Gainera, markesina batzuek **txartel makinak** izango dituzte, autobusera sartu aurretik ticketinga egin ahal izateko, autobusera sartzeko denbora murriztu eta prozesua erosoagoa eta azkarragoa izan dadin.

Geltokiak ere diseinu berritzaile batekin eta funtzionaltasun berriekin berrituko dira, horien artean informazio digitaleko pantailak bi aldeetatik eta identifikazio totemak, LED argiztapenarekin eta denbora errealeko minutajearekin. Zutoina duten geltokietan, identifikazio totema eta pantaila digitala ere jarriko dira, bidaiarien esperientzia hobetzeko.

Azkenik, garraio sistemaren **intermodalitatea eta konektagarritasuna** landu dira. Dbus beste garraio bide jasangarri batzuekin integratuko da, hala nola **Dbizi** bizikleta publikoen zerbitzuarekin eta tren zerbitzuekin edo hiriarteko zerbitzuekin. Integrazio horrek mugikortasun sare eraginkorrago eta konektatuago bat sortzen lagunduko du, eta horrek herritarren esperientzia hobetuko du, hirian zehar arinago eta etenik gabe mugitzeko aukera emanez.

BEI sistema (Bus Elektriko Adimenduna) inplementatu aurreko fasean lan egiteaz gain, 17-Gros-Amara-Miramón linean, Dbusek 2024an BEI autobus linea berriko aparkalekua elektrifikatzeko proiektuaren idazketa esleitu du. Enpresa esleipenduna IP21 Ingenieria de Proyectos SL izan da, bere eskaintza teknikoan izan baita ondoen baloratu dena.

Obra horrek etorkizuneko BEI linearen elektromugikortasun beharrak asetzea ahalbideatuko du, garraio jasangarriago eta berritzaileago baterako eraldaketan aurrera egiteko.



Sentsibilizazio eta dibulgazio kanpainak

“Salto batean” udako kanpaina

2024ko udan, Dbusek **“Salto batean”** izeneko udako kanpaina abiarazi zuen, donostiarrak zein udan Donostiara hurbiltzeko ziren pertsona guztiak autoaren ordezkari autobusak erabiltzera gonbidatuz.



Kanpaina fresko eta dibertigarria zen, eta **Dbusen elementurik ikoniko eta adierazgarriena** zen protagonista: igela. Animalia hori erabili zen, **salto batean!** nahi duen lekura arin iristeko duen gaitasunagatik, herritarrek eta bisitariak garraio publikoaren bidez hiriko edozein leku eta planetara iristeko gonbidatzeko.

Kanpaina **Donostiako udako ohiko planak** irudikatzen zituzten 5 irudik osatzen zuten, igela protagonista zela.

Kanpainaren helburuaz en garraio publikoa erabiltzearen garrantziaz eta horrek erabiltzaileei ematen dizkien onurez sentsibilizatzea eta kontzientziaztea.

“Bidean bat” kanpaina, hiri mugikortasunaren zailtasunak minimizatzeke

Donostiako Udalak Mugikortasunaren Europako Astea dela-eta prestatu zuen programazioaren baitan, Dbusek **“Bidean bat”** topaketa antolatu zuen Alderdi Ederreko zabalgunean, herritarrekin elkartzeko, **hiriko autobus bat gidatzean dauden mugapen berri emateko, eta arriskuak saihesteko eta hirian mugitzeko zailtasunak minimizatzeke.**

Parte hartzaileek zuzenean ikusi ahal izan zuten zailtasun horietako batzuk, esaterako, hala nola ibilgailuak dituen **ikuspen mugak** edo **angeluitsuak**. Era berean, Dbuseko langileek maniobra batzuk egin zituzten, bertaratu zirenek kanpotik ikus zezaten zenbat leku behar den maniobra horiek egiteko.

“Dbus eta Gabonak”, Gabonetako urteko marrazki lehiaketa

18. urtez jarraian, DTK-k haurrentzako Gabonetako marrazki lehiaketa antolatu zuen. Neska-mutikoen sormena sustatzeaz gain, lehiaketaren asmoa zen gazteenei Donostian garraio publikoa erabiltzeak duen garrantzia helaraztea, Donostiako hiriguneen jasagarritasuna eta herritarren bizi kalitatea bermatzeko.

Sari banaketa Donostiako Aquariumean egin zen. Leku horrek, Dbusek eta Dbizik bezala, bizi ohitura jasagarriagoak sustatzen dihardu, giza jarduerak ingurumenean duen eragina murrizteko.



“Argibusa” jarduera



Beste urte batez, Dbusek “Argibusa” jarduera antolatu zuen, Konpainiaren autobus bat erabiliz adineko pertsonen Donostiako gabon giroa eta dekorazioa hurbiltzeko. Ekimena Donostiako Udalak hiria lagunkoiagoa izateko eta adinekoen bizi kalitatea hobetzeko sustatzen duen “Donostia Lagunkoia” planean kokatu zen.

Oraingo honetan, jarduera Txara 2-Baliabide asistentzial eta sozialen zentroarekin elkarlanean antolatu zen, eta zentro horretan bizi diren adineko 35 pertsonak aukera izan zuten autobusean irteera bat egiteko eta **hiriko gabon giroa** ikusteko.

Jarduera horri esker, 65 eta 98 urte bitarteko adinekoek espazio esanguratsuetan ibili ahal izan ziren, eta pertsona askorentzat ohikoa den jarduera batera hurbildu. Parte hartzaileak zentroko arduradunekin eta senideekin batera ibili ziren, esperientzia partekatu ahal izateko.

Gabonetako kanpaina

2024ko Gabonetan, Konpainiaren erabiltzaileei eta barneko langileei jaiak zoriontzeko asmoz, Dbusek kanpaina bat abiarazi zuen, honako lelo honekin: “Jaietako magia zurekin mugitzen da”.

Lerro grafikoa Dbuseko lineen zirkulu bereizgarrietan oinarritzen zen, konpainiaren elementu adierazgarri eta identifikatzaile diren heinean.

Dbuseko erabiltzaileei jaiak modu atsegin eta maitagarrian zoriontzea izan zen kanpainaren helburua, hori baino ez, Dbus bezalako garraio jasagarriaren alde egindako apustua ere eskertuz.



Autobusetako segurtasun kanpaina

Urtearen bukaeran, Dbusek “14 Tip zure bidaia Top izan dadin” izeneko kanpaina gauzatu zuen, Dbuseko bidaiariak bidaietan segurtasun eta erosotasun handiagoa izatea helburu.

Kanpaina Willis Towers Watson aseguru artekaritzarekin lankidetzan garatu zen, eta erabiltzaile guztiei zuzendu zitzaizkien; bereziki adinekoen kolektiboari, egon daitezkeen istripuetan arrisku gehien dutenak izanik.

Jarduera horretarako eskusiboki prestatutako bi pertsonak Dbuseko hainbat autobus eta lineatan bidaiatu zuten, **erabiltzaileei bidaia seguru baterako jarraibideak eta gomendioak eskaintzeko**. Gainera, erretiratuen egoitzak bisitatu zituzten eta autobusean modu seguruan bidaiatzeko moduari buruzko hitzaldi informatiboak eman zituzten. Era berean, autobusean seguru eta eroso bidaiatzeko moduari buruzko informazio liburuxkak banatuko ziren.



Kalitate irizpideak

DTKren **kalitate irizpide zorrotzek eta konpainiak eskuratutako balioek eta konpromisoek** argi eta garbi lagundu dute egunero hiri barrutik mugitzeko Dbus aukeratzen duten bidaiari kopuru handia lortzen eta sendotzen.

Flotaren **irisgarritasuna** da Donostian mugikortasun unibertsala ahalbidetzen duen alderdi nagusia. Ibilgailuen %100 irisgarriak dira, pisu baxuarekin eta aulki gurpildunetarako eta taka-taka erabiltzen duten pertsonentzako sarbide arrapalarekin.

Autobusen **erosotasuna eta segurtasuna** eskutik doaz, egunero betetzen diren garbiketa protokoloen eta istripuak eta gorabeherak prebenitzeko planaren bidez, gutxieneko ezbehar tasa maila bermatzen baitute.

Informazioak eta puntualtasunak, gaur egun %94,94koak direnak, egunero milaka donostiar eta bisitarik helmugara iristeko behar duten zerbitzuaren fidagarritasuna bermatzen dute, eta hori guztia **ingurumeneko inpaktu gero eta txikiagoarekin**, ingurumena gero eta gehiago errespetatzen duten ibilgailuak sartzeari esker.



AENOR-en kalitate ziurtagiria

Dbusen, kudeaketan zein zerbitzuan bikaintasun politika jarraituz, urteko bidaien ia %50 diren hiru garraio linea nagusiek (5, 13 eta 28 lineak) AENORen UNE-EN 13816 kalitate ziurtagiria dute.

Egiaztagiria eskuratu duten hiru lineek (L5 Benta Berri, L13 Altza eta L28 Amara-Ospitaleak) hiriko 3 ardatz nagusiak hartzen dituzte.


Autobus lineek ziurtagiria modu progresiboan eskuratu badute ere, funtzionamenduko prozedura berak eta eskakizun berak aplikatzen ari da Donostiako hiriko autobus linea guztietan; beraz, Dbusek bermatzen du hiriko autobus sare osoko autobus guztiek kalitate altua eta berbera dutela.

Azpimarratzekoa da 2020an DTK-k Energiaren Kudeaketarako Sistemaren UNE-EN ISO 50001 araua internazionala ezarri zuela, baliabide energetikoak modu efizientearen erabiltzen utziko dion tresna bat edukitzeko eta horren bidez Konpainiaren energiaren kontsumoa eta isuri kutsatzaileak murrizteko. Konpainiak garatzen dituen jardura, operazio edo zerbitzu guztiei aplikatzen zaie, baita Konpainiaren flotari ere, energia modu egokian kudeatzen dela bermatzeko. AENORek ziurtatu du arau berri horren ezarpena, eta Konpainiaren jardura guztietan aplikatzen den energiaren

iraunkortasunarekiko eta efizientziarekiko konpromiso etengabearen adierazgarria da. 2023an berritu egin da ziurtagiri hori.

Gainera, 2022an Dbusek AENORen beste ziurtagiri bat eskuratu zuen, Laneko Segurtasuna eta Osasuna Kudeatzeko Sistemaren ISO 45.001 araua inplementatuta, Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan Legeak ezarritako preskripzioak betetzea eta Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistemaren jarduna etengabe hobetzea ahalbidetuko duen tresna bat edukitzeko. Konpainiak garatzen dituen jardura, operazio edo zerbitzu guztiei aplikatzen zaie, baita Konpainiaren flotari ere, Laneko arriskuen prebentzioa modu egokian kudeatzen dela bermatzeko. AENORek ziurtatu du arau berri horren ezarpena, eta erakusten du enpresak Laneko Arriskuen Prebentzioarekin duen konpromisoa etengabea dela. 2023an, ISO 45.001ren jarraipeneko lehen auditoria egin zen

Bukatzeko, azpimarratzekoa da, Dbizik AENORen ziurtagiria lortu zuela, Garraio Publikoaren Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren gaineko UNE-EN 13816 arauaren arabera, zeinak bere zerbitzuaren kalitatea aitortzen duen. Arau honen arabera AENORen ziurtagiria eskuratu duen bizikleten alokairurako lehen enpresa eta bakarra izan da.



Kanpo komunikazioa

Erreklamazioen eta iradokizunen kudeaketa

Bezeroei eskaintzen zaien arreta hobetzeko politika da DTKn gehien zaintzen den alderdietako bat. Konpainia bezeroen gogobetetzera zuzenduta eta bideratuta dago; beraz, bezeroengandik informazioa eskuratzear arduratzen da, etorkizunean ondo egiten dakiena hobetzen lagundu diolakoan eta bezeroen laguntzarekin ondo hazi ahal izateko.

Komunikatzeko kanalik garrantzitsuenak Erabiltzaileari Arreta Egiteko zerbitzua da. Zerbitzu horretan, telefonoz edo posta elektronikoz bidez egiten zaie arreta jasotako kontsulta, iradokizun eta kexa guztiei, modu pertsonalizatuan.

Nabarmentzekoa da kexak, erreklamazioak eta iradokizunak UNE-EN 13-816 arauaren arabera ezarritako kalitate irizpideetan oinarrituta kudeatzen direla.

2024ko erreklamazioak eta iradokizunak

Idatzizko erreklamazioak	5	%0,25
Telefono bidezko erreklamazioak	875	%43,66
Idatzizko iradokizunak	184	%9,18
Idatzizko kexak	940	%46,91

Webgunea

A lo largo de los últimos años los smartphones y tabletas Azken urteetan smartphoneak eta tabletak ezinbesteko euskarri eramangarriak dira informazioa bilatzeko eta kudeatzeko. Izan ere, gaur egun Dbusen webguneak jasotzen dituen bisiten %83,1 baino gehiago gailu mugikorren bidez egiten dira, bere responsive diseinuari esker, kontsultarako erabiltzen diren euskarrietara egokitzen baita, pantailaren tamaina edozein dela ere, eta informazio garrantzitsua etengabe eguneratzen delako.

2024an Dbusen webguneak 2.949.824 bisita jaso ditu, aurreko urtearekin alderatuta %26,7 bisita gehiago, orduan guztira 2.328.194 bisita jaso baitziren.

Sare sozialak

Sare sozialak oso presente daude Dbusen egunerokoan, eta platalaforma bakoitzak helburu zehatz bat dauka, bere ezaugarri eta erabiltzaileen arabera..

Dbusen egunerokoa oso aldakorra da; izan ere, trafikoaren egoeraren, kaleetako jarduketaren (konponketak eta eraikuntzak) eta hiriko hainbat tokitan egin daitezkeen ekitaldien arabera da. Dbusen lineetan gerta daitezkeen aldaketa guztiak sare sozialen bidez komunikatzen dira, eta kanal horiek, berehalakotasunari eta elkarrekintzari esker, erabiltzaile askorengana iristea ahalbidetzen dute..

Gaur egun, Dbusen profilek 14.000 jarraitzaile* baino gehiago dituzte bere sare sozialetan, eta erabiltzaile bakoitzarekin duen harremana eta elkarriketa indibidual eta pertsonalizatua sendotzen jarraitzen du egunero.

* Twitter: 4.006
Facebook: 3.304
Instagram: 2.156
Youtube: 4.730

Komunikabideak

DTK-k konpromiso sendoa hartu du hiritarrak eta bisitariak une oro informatuta edukitzeko, Konpainiaren eguneroko zerbitzuan egiten diren aldaketa eta hobekuntzen berri emanez. Horregatik, ezinbestekoa da informazio hori DTKren plataformetan ez ezik, hedapen handieneko komunikabideetan ere zabaltzea.

2024an, Konpainiak 183 prentsa ohar argitaratu ditu, horietatik 131 antolatutako ekitaldiengatik egon diren zerbitzu bereziei eta zerbitzu aldaketei buruzkoak, eta 52 informazio korporatiboari buruzkoak.

Teknologiak herritarren zerbitzura

Teknologia berrien ezagutza eta aplikazioa funtsezko zerbait dira DTKren zerbitzuen eraginkortasuna eta efizientzia etengabe hobetzen joateko.

Horregatik, Konpainiak sistema teknologiko aurreratuenak ditu eta kudeaketa sistemen etengabeko eguneraketa bilatzen du ahalik eta zerbitzurik hoberena ematea bermatzeko..

Ontziratutako informazio sistemak

DTK-k bereziki azpimarratzen ditu **orientazioan eta bidaiaren planifikazioan** laguntzen duten autobus barruko informazio edukiak. Horretarako, ontziratutako multimedia pantailak erabiltzen dira.

2016an sistema berri bat jarri zen martxan, hurrengo geltokian Dbuseko **beste linea batzuekiko konexioei** eta zerbitzu horiek geltoki bakoitzera iristeko **falta diren minutuei** buruzko informazioa emateko. Sistema horrek osatu egiten du **hurrengo geltokia abisatzeko** lehendik dagoen zerbitzua. Zerbitzu hori 2015ean eguneratu zen, eta ONCEko bazkideek dituzten eta Gipuzkoako Lurralde Garraioaren Agintaritzaren egoitzan ere eros daitezkeen aginteen bidez aktibatu daitezkeen informazio audioa dauka.

Informazio sistemak geltokietan

DTK-k baditu jada 117 informazio panel gehien erabiltzen diren hiriko geltokietan. Informazio panel horietatik 106k Led argiztapena dute eta 11k TFT pantaila dute.

TFT panelek, linea bakoitza dagokion geltokira zer ordutan helduko den jakinaraztea ez ezik, Dbuseko lineetan eragina duten trafiko aldaketen berri ematen dute eta ikusmen arazoak dituzten pertsonentzako audio bidezko informazioa ere bai. Audio horiek autobus barruko sistemetak erabiltzen den aginte berarekin aktibatzen dira.

Gainera, hiriko panel elektroniko guztiek audio sistema bat dute, behin aktibatuta, linea bakoitzeko autobusa

geltokira iristeko kalkulaturako denbora eta helmuga adierazten dituen. Apustu horrekin, Dbusek bere zerbitzuen irisgarritasuna eta erosotasuna areagotu nahi du, pertsona guztiek Dbuseko autobusetan arazorik gabe bidaiatu ahal dezaten.

Osagarri gisa, eta Dbuseko geltokiak gero eta irisgarriagoak izan daitezen, markesina berriek Navilens gidatze sistema dute, ikusmen desgaitasuna duten pertsonentzat.

BRT Kalitate Handiko Garraio Sistema (Bus Rapid Transit)

Dbuseko 5 eta 28 lineak dira erabilienak, eta horiek BRT sistema dute, hau da, autobusei lehentasuna eta erabiltzaileei zerbitzu bikaina ematen dieten zirkulazio erreiki propioak izanik **bidaiak azkar, eroso eta eraginkortasunez egitea helburu duten kalitate handiko autobus** sistema.

Garraiorako beste sistema batzuekin alderatuta honakoak dira bere ezaugarri eta abantaila nagusiak::

- Autobus “garbiak”, **gutxi kutsatzen duten** eta edukiera handiko **ibilgailuak**.
- **Beraiek ibiltzeko baino ez diren plataformetatik** dabilta (bus erreiak).
- **Puntualtasun eta fidagarritasuneko** indize handiak.
- Denbora errealean **informazioa emateko sistemak** geltokietan eta ibilgailuetan.
- **Ordainketa sistema arinak**.
- Kontrol **sistema zentralizatuta** (SAE) eta **ITSaren erabilera** (Garraio Sistema Adimendunak).
- **Inbertsioetako** eta mantentze lanetako **kostu txikiak**, trenak dituenekin alderatuta, izan ere, trenak azpiegitura obra sendoak behar ditu..

Gainera, BRT sistemetan autobusen ohiko sistemen alderdi batzuk hobetzen dira nabarmenki, ibilgailuen ahalmena handituta, abiadura komertziala hobetuta semaforoetan lehentasuna izanda, erreserbatutako plataforma babestuta, irisgarritasuna hobetuta geltokietan, gai kutsagarrien isuria murriztuta eta ibilgailuen eta zerbitzuaren irudia hobetuta.

Bus erreiak

Donostiak bus erreiaren hainbat zati ditu hiri osoan zehar. Gaur egun, Donostiak **12,3 km bus errei** ditu. Errei horiek autobus eta taxiarentako baino ez dira, eta haiei esker **autobusen zirkulazioa arina** da, baita auto pilaketa handiak daudenean ere.

Gaur egun, erabiltzaileek Dbuseko autobusetan egiten dituzten kilometroen %20,1 bus erreetatik egiten dira, **ibilbide denbora murriztuta eta bidaiei kalitatea handituta**.

Lehentasuna semaforoetan

Garraio publikoaren **puntualtasuna funtsezko** elementua da herritarrei **zerbitzu eraginkorra emateko**. Horregatik, DTK-k semaforoetan lehentasuna izateko sistemak ditu. Beste modu batera esanda, semaforoak automatikoki egokitu dira autobusek bidegurutzetan egin beharreko itxaronaldien balizko premietara, hartara aurreztu daitezkeelako itxaronaldietako tartearak.

Gaur egun, Dbuseko autobusek hiriko **82 bidegurutzetan** eska dezakete lehentasuna izatea.

Mugikorretarako aplikazioak

Android eta iOS mugikorretarako aplikazio ofiziala da Dbuseko erabiltzaileentzat informazioa kontsultatzeko bide nagusia. Egunero 8.000 erabiltzaile bakarrek baino gehiagok erabiltzen dute aplikazioa beren bidaia planifikatzeko eta denbora errealean iristeko denborak kontsultatzeko.

Dbusen barruan antzemandako hobekuntza aukerei eta erabiltzaileek egindako iradokizunei esker, hobetzeko proposamenak eta funtzionalitate berriak prestatzen dira. 2024an Dbus aplikazio mugikor berri bat aztertzen eta garatzen hasi da, hobekuntzak eta funtzionalitate berriak erantsiko dituen, erabiltzaileen esperientzia modernoagoa eta haien beharretara egokitu eskaintzeko.



2024an Dbusen aplikazioa 28.379 aldiz deskargatu da, eta jada 198.000 deskarga baino gehiago ditu sistema eragile guztien artean, 2014an kaleratu zenetik.

Innobus Tour proiektua

Teknologia berriak ezartzearen barruan eta Europako funtsek MITMAren 'Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean' diruz lagunduta, Dbusek 2024an garraio publikoaren digitalizazioari buruzko **"Innobus-Tour"** proiektua ere amaitu du, Donostia, Palma, Malaga eta Kanaria Handiko Las Palmas izan direla buru.

Elkarlaneko proiektu bat da, eta helburua da autobus zerbitzua eta haren **intermodalitatea** hobetzeko jarduera berritzaileak eta errepikagarriak garatzea, prozesuak eta zerbitzuak digitalizatuz eta **sentsorizatuz**.

Proiektuaren bidez, **sistema efizienteagoa eta irisgarriagoa izatea eta garraio publikoaren erabiltzaileentzat onuragarria izatea lortu** nahi izan da, eta, era berean, autobuseko garraio publikoarekiko gogobetetasuna eta garraibide horren erakargarritasuna areagotu, hiri turistiko erakargarri horiek bisitatu edo bertan bizi eta autobusen erabiltzaile direnentzat.

Hauek dira **Dbusek** garraio publikoa hobetzeko **implementatu dituen jarduerak**:

- Autobusak **elkartu ez daitez**en eta modu efiziente gidatzeko **sistema**.
- **Markesina adimendunak**, diseinu funtzional eta irisgarri batez hornituta.
- **Ordainketa digitalizatzea**, QR 24 eta 48 orduko txartelak gehituta.
- **Lekuak kontrolatzeko sistema** eta jatorria-helmuga matrizeen kalkulua estimazio algoritmo bidez.
- Autobusak **sentsorizatze**ko eta **monitorizatze**ko **sistemak** (arrapala adimendunak, bidaia-zenbaketa, aire girotua).
- Autobus erreiak eta geltokiak bidegabeki **okupatuta dauden detektatzeko eta kontrolatzeko sistema garatzea eta ezartzea**, mugikortasuna eraginkorragoa eta ordenatuagoa izan dadin.
- **Eskaria iragartzeko sistemak** eta geltokiak sentsorizatze sistemak, denbora errealeko informazioarekin.
- **Planifikazio sistema espezializatuak**, giza baliabideak eta material mugikorra optimizatzeko.
- **Lan harremanen digitalizazioa**.
- **Komunikazio eta informazio sistemak digitalizatzea**.
- **Tailerreko jarduerak** eta jardura osagarriak **digitalizatzea**, flota jasangarria izan dadin.

Euskararekiko konpromisoa

2005ean, Donostiako Tranbia Konpainiak helburu estrategiko gisa ezarri zuen euskararen erabilera modu sistematikoan garatzea, bai konpainiako langileen artean, bai kanpokoekin ere, erabiltzaile mailan zein hornitzaile, azpikontratista eta erakunde publikoekiko kudeaketan.

2021eko martxotik, Konpainia V. Euskara Plan Estrategikoaren aplikazioan murgilduta dago. Plan horren bidez, konpainiaren hizkuntza irizpideak, gauzatu beharreko ekintzak eta prestakuntza planak ezartzen dira, guztia indarrean dagoen arau esparruaren arabera.

Hauek izan dira 2024ko helburu nagusiak eta helburu horiei lotuta garatu diren ekintzak:

Euskararen ezagutza areagotzea

- Mintzasaioak antolatzea.
- Oinarritzko mailako euskara ikastaroa, Moodle eta online sistemaren bidez.
- Oinarritzko euskara mailako ikastaroa, gidarientzat bereziki.


Erabilera areagotzea

- Euskararen erabilera areagotzeko pilulak banatu dira.
- Administrazioako langileekin banakako elkarrizketak egin dira, langile bakoitzaren egoera ezagutzeko, eta euskara lantzeko eta hobetzeko baliabideak eskaini zaizkie.
- "Ariguneak" proiektu pilotua egin da langileen arloan, eta euskararen erabilera areagotu egin da. .

Euskara Normalizatzeko Plana instituzionalizatzea

Urteko kudeaketa plana egitea, Dbuseko koordinazio taldearekin bilerak egitea, eta Udaleko euskara teknikariekin jarraipena eta koordinazioa egiteko bilerak egitea.

Jarraian, euskararen ezagutzak 2024an zuen banaketa erakusten da:



Konpainiako langile guztiak sar daitezke langilearen ataritik "Euskararen Txokoa" izeneko atalera. Atal horretan euskara hobetu dezakete esteka interesgarrien bitartez, eta hizkuntza politikari buruzko eta euskara ikastaroak edo DTK-ko langileen artean euskaraz hitz egiteko saioen gaineko informazioa eskuratu dezakete.

Konpainian, egunerokoan hizkuntza ikastea eta erabiltzea sustatzeaz gain, langile guztientzako sustapen eta motibazio ekintza puntualak egiten dira.



04

Elektromugikortasuna



Konpainiak aurrera egiten jarraitzen du eta elektromugikortasunaren alde egiten duen apustua berresten du, gero eta iraunkorragoa den eta ingurumena errespetatzen duen autobus flota baterantz eboluzionatuz pixkanaka.

2011n Man Lions City Hybrid modeloko lehen autobus hibridoa sartu zuenetik, eta gero, 2014an, Irizarren lehen i2e autobus %100 elektrikoa zerbitzuan jarri ondoren, azken urteotan hain kutsatzaileak ez diren motorrak dituzten autobus flota baterantz eboluzionatu da. 2024an, 12 eta 18 metroko 19 autobus %100 elektriko, zero emisiokoak eta MAN Lions City modelokoak, gehitu dira flotan, 2030erako flota %100 elektriko eta emisiorik gabeko bihurtzeko helburu estrategikoaren parte gisa.

Eraberean, azpimarratzekoa da bizikleta publikoa alokatzeko Dbizi sistemaren hedapena eta handitzea, elektromugikortasunaren aldeko apustu sendoa baita.

DTK-k eskaintzen dituen bi garraio moduen konbinazioak laguntzen du Donostia berde, garbi eta jasangarri bat lortzen.

Kotxetegiak elektrifikatzea

2024an Dbuseko kotxetegiak elektrifikatzeko lanak amaitu dira, flota %100 elektriko bihurtzeko eraldaketa prozesuan funtsezko mugarrira lortuta. Lanak 11 hilabetez egin dira, eta horietako batzuk izan dira azpiegitura elektrikoaren modernizatzea eta karga sistema berriak instalatzea, autobus elektrikoak apurka-apurka sartu ahal izateko.

Hauek izan dira jarduketa nagusiak:

- **Azpiegitura elektrikoak:** Egiako azpiestaziotik Kotxetegietaraino 1,5 km-ko linea elektriko bat sortzea, hornidura banatzeko sekzionamendu zentro berri bat instalatuta.

- **Karga sistemak:** 22 karga puntu eta 60 pantografo alderantzikatueterako egitura bat instalatzea, eraikineko 119 aparkalekuak ekipatuz..

Jarduketa horiek **Bideberdea: etorkizun %100 elektriko eta jasangarritasun** izeneko proiektu estrategikoaren parte dira, zeinarekin 2030aren amaieran flota %100 elektrikoa izatea bilatzen baita.

Proiektuan 5.504.913 euro inbertitu dira guztira, eta diru kopuru horretatik **3.038.800 euro Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren bidez finantzatu dira, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsen babespean.**



Flota gero eta jasangarriagoa

MITMAren (Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioa) programaren lehen deialdian lortutako laguntzei esker, 2024an DTK-k 12 m-ko beste 13 autobus %100 elektriko gehiago eta 18 m-ko beste 6 autobus %100 elektriko gehiago erosteko esleipena egin ahal izan dio MAN TRUCK & BUS IBERIA, SAUri. Horrela, 18 metroko lehen autobus %100 elektriko artikulatuak sartuko ditu flotan modu iraunkorrean.

Autobus %100 elektrikoak eta zero emisioak dira, eta Dbuseko flotaren ezaugarri guztiak betetzen dituzte, hau da, plataforma baxuak eta arrapala elektrikoak dituzte mugikortasun murriztua duten pertsonentzat, autobusa %100 irisgarri izan dadin. Era berean, ibilgailua erabat egokitzen da Dbusen baldintza teknikoetara, hala nola, gidariaren lanpostuaren diseinura eta erabiltzaileentzako lekuaren banaketara, besteak beste.

Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendarako Ministerioak (MITMA), halaber, 2023an onartu zuen **Dbusi laguntzak ematea**, Donostiako Udalaren bidez, Next Generation EU Europako funtsen bigarren deialdiaren barruan. Funts horiei esker, hiriko garraio publikoa elektrifikatzen

eta digitalizatzen jarraitu ahal izango da. Zehazki, datozen urteetan 12 metroko autobus %100 elektriko gehiago sartuko dira Dbusen zerbitzuan eta markesinak pixkanaka berritzen jarraituko da, Dbizi alokairuko bizikleta publikoaren sistema zabaltzeaz gain, emisio akustikoak eta kutsatzaileak murriztea sustatuta eta airearen kalitatea hobetuta.

2025ean Dbusek 44 autobus %100 elektriko izango ditu, hau da, 12 metroko flotaren %45 erabat elektrikoak izango da, eta flotaren gainerako %55 hibridoak. Beraz, 12 metroko flotaren %100ak ingurumena errespetatzen duen eta jasangarria den teknologia izango du.

Autobus berri horiekin batera, kargagailuak ere erosiko dira, gauez autobusak kotxetegietan kargatzeko, eta plataforma adimendun bat ere edukiko da autobusen kargarako azpiegituraren funtzionamendua eta kudeaketa errazteko. Plataforma horrek ahalbidetuko du egiten diren kargekin autobusek esleituta dituzten zerbitzuak bete ahal izatea. Horrela, kontsumoa optimizatuko da.



Dbizi zerbitzua sendotzea

Bizikleta publikoaren alokairu sistemak sendotzen jarraitzen du, eta eskariak handitzen jarraitzen du.

2024an zerbitzuaren erabilera sendotu egin da azkenean, 2020an abian jarri zenetik. **2024ko abenduaren amaieran 1.294.358 ziren zerbitzuak egindako bidaia**, eta aurreko urtean, berriz, 945.642 bidaia egin ziren.

2023ko uztaillean sistema handitu zen, 21 geltoki gehituz, eta Altza, Bidebieta eta Añorga auzoetara iritsi zen. Hedapen horrek 2024an fruituak eman ditu, bidaia kopurua handitu baita eta erabilerak modu ekitatiboagoan banatu dira geltoki gehiagoren artean.

Giltzarrapo adimenduna ezartzeak, Geltoki+ eta Tarteko Geldialdia funtzionaltasunekin batera, Dbiziko bidaia kopurua handitzen lagundu du 2024an. Hobekuntza horiei esker, zerbitzua malgutasun handiagoz erabili ahal izan da, leku gehiagotan aparkatzea erraztuta eta

erabiltzaileei bidaia amaitu beharrik gabe aldi baterako geldialdiak egiteko aukera eskainita. Horrek denak sistema gehiago erabiltzea erraztu du.

Horretaz aparte, bizikleta mekanikoak eta bizikleta elektrikoak konbinatu ahal izateak, hau da, bizikleta mekanikoak eremu lauetarako eta bizikleta elektrikoak hiriko gunek garaietarako erabili ahal izateak, eremu lauetatik goialdeetarako joan-etorrietarako dagoen deskontu sistemak sustatuta, erraztu egin du bizikleta hirian erreferentziazko garraiobide jasangarri gisa aukeratua izatea.

Era berean, azpimarratzekoa da Dbiziren ohiko erabiltzaileek bizikleta elektrikoak nahiago dituztela argi eta garbi. Azken urtean, bizikleta elektrikoaren erabilera nabarmen igo da, Dbizin egindako bidaia guztien %63tik %73ra izatera igarota, eta bidaia gainerako %27a bizikleta mekanikoan egin dira.





05


Langileak

d·bus

DTK-k funtsezko aktibotzat jotzen ditu bere langileak, konpainiaren arrakastaren eta ondo egindako lanaren gakotzat, alegia. Horretarako, ahalegin berezia egiten du bere langileak prestatzeko, bai eta langileak motibatzeko eta haien artean giro ona egoteko ere.

Gaur egun, Konpainiak 593,68 langile ditu batez beste plantillan, eta horietatik 77,22 emakumeak dira.

2024an, Konpainiako langileen batez besteko adina 49,99 urtekoa izan da, eta 6 lagunek erretiro partziala hartu dute.



Profesionalen etengabeko prestakuntza

Konpainiaren zerbitzuaren kalitatea ez da bakarrik berrikuntza teknologikoan oinarritzen. Era berean, eta oso funtsean, egunero Donostiako hiritarrei eta hiria bisitatzen dutenei zerbitzua ematen dieten profesionalak prestatzeko jarduerak egituratzen dira. Hori dela eta, DTK-k etengabe prestakuntza eskaintzen die bere langileei, gidatzeko moduari efizientziari, segurtasunari eta euskarari buruz, **zerbitzu profesionala eta eraginkorra eman dezaten beren eguneroko jardunean.**

2024an **7.352,5 prestakuntza ordu** eman dira, hau da, 9,76 ordu pertsonako.

2024an, Gaitasun Profesionalaren Ziurtagiria eskuratzeko prestakuntza, ibilgailu elektrikoen gaineko prestakuntza eta lan arriskuen prebentzioaren alorrekoa izan dira prestakuntza nagusiak.

2024an 7.352,5
prestakuntza ordu
eman dira.



Baldintza eta onura sozial berdinak langile guztientzat

Plantillaren %100 DTKren hitzarmen kolektiboaren menpe dago, eta hitzarmen horretan Konpainiako langileen eskubideak eta obligazioak definitzen dira.

Hitzarmenean, non, aurrekoan bezala, ahalegin berezia egiten baita langileen bizitza pertsonala eta lana uztartzeko eta lan baldintzak hobetzeko egon daitezkeen bide guztiak aztertzeko, **onura sozial** hauek jasotzen dira nagusiki: metatutako orduengatik Enpresak emango dituen atsedenaldiak gehiago izatea, norberaren kontuetarako baimenak zabaltzea eta azterketa medikoak eta arropa jasotzea arautzea.



Laneko osasuna

Lan Osasuneko Batzordeak aldian-aldian bilerak egiten ditu lanpostu guztietan diharduten langileen ongizatean eragina duten alderdi nagusiak aztertu eta haietan hobekuntzak ezartzeko.

Dbusek Prebentzio Zerbitzu propioa du. Alde batetik, Mediki Zerbitzua dago, mediku batekin eta OLT batekin, zeinak DTK-ko plantillari azterketa medikoak egiten baitizkio. Mediki zerbitzuak osasun arreta etengabea eskaintzen die Konpainiako langile guztiei, beraien eguneroko jardunaren ondorioz izan ditzaketen lesioak eta gaixotasunak prebenitzeko eta zaintzeko. Bestalde, Laneko Arriskuen Prebentzioko teknikari bat dago. Arriskuen identifikazioa eta ebaluazioa dira, besteak beste, bere eginkizun nagusiak, eta horrekin prebentzio planak ezarri daitezke, bai eta prestakuntza eta planen eta horien emaitzen informazioa, plangintza, jarraipena, kontrola eta hobekuntza ere.

Era berean, 2024an honako jarduketa hauek egin dira LAParen arloan:

- Laneko Segurtasuna Kudeatzeko Sistemaren ISO 45.001 arauaren arabeko Ziurtagiriaren bigarren auditoria egin da AENOREkin.
- LAPa kudeatzeko sistemaren prozedura batzuk eguneratu dira.
- LAParen arloko prestakuntza plan bat definitu da eta prestakuntza eta informazioa eman dira.
- Segurtasun neurriak betetzen ote diren ikuskatu da.
- Instalazioen Autobabeserako Plana eguneratu da, larrialdietan jarduteko ardura duten langileei jakinarazi zaie eta larrialdi simulazioa egin da.
- Lehen laguntzei eta suteak itzaltzeari buruzko prestakuntza eman da.
- Tailerreko lanpostuetan neurraketa higienikoak egin dira (karrozeriako lanak eta autobusen errektuntzako ke emisioak eta zarata).
- Arrisku piskosozialen ebaluazio bat egin da enpresako lanpostu.

- LAP arloko aholkuei buruzko informazio kanpaina bat egin da eta 4 aholku argitaratu dira.
- LAP arloko informazio berria argitaratu da langilearen atarian.

Osasunaren zaintzari dagokionez, 2024an aztertu diren alderdi nagusiak hauek izan dira: 589 azterketa mediko egin dira eta eskatu edo behar izan duten langileei Psikologia eta Fisioterapia zerbitzua eskaini zaie. Zerbitzu medikotik 40 pertsona bideratu dira Fisioterapia zerbitzura eta 11 Psikoterapia zerbitzura..

Hauek izan dira osasunaren zaintzaren arloan 2024an landutako gai nagusiak:

- Azterketa medikoak: 589 azterketa mediko egin dira.
- Hala eskatu edo behar izan duten langileei Psikologia eta Fisioterapia zerbitzua eskaini zaie. Zerbitzu medikotik 40 pertsona bideratu dira Fisioterapia zerbitzura eta 11 Psikoterapia zerbitzura.

Barne komunikazioa eta langileen parte hartzea

Komunikazioa hobetzeko helburuarekin, **barne komunikazioa hobetzeko plan integral bat** garatu da DTKn. 2024an barruko buletina argitaratzen jarraitu da. Buletinaren helburua da Konpainiako plantilla osoari Konpainiaren azken nobedadeen berri ematea.

Gainera, DTK-k **enpleguaren atari bat** du. Atari horretan, **langileen eta zerbitzuen inguruko albiste eta ohar guztiak zintzilikatzen dira**, baita kontuan hartu beharreko jarduerak, bitxikeria edota nobedade guztiak ere. Plataforma bat da, eta barne komunikaziorako tresna eraginkorra.

2024an, langileen eta zuzendaritzaren arteko gosariak egin dira. Gosari horietan Konpainiako departamentu eta sekzio guztietako langileek parte hartu dute.

Gainera, beste ekintza batzuk egin dira langileen parte hartzea eta motibazioa areagotzeko, esaterako haueko:

- DTKren enpresa hornitzaileekin deskontu politikak negoziatu dira langileentzat.
- Langileen etengabeko ebaluazioa.
- Langileentzako zirkularrak argitaratzea eta zabaltzea.
- Berdintasun Planean jasotako hainbat jarduerak.
- Haurrentzako marrazki lehiaketa, langileen seme-alabentzat.



Berdintasun plana

2019aren bukaeran berdintasunaren alorreko aholkulari bat kontratatu zen. Emakundek homologatutako aholkulari bat da, eta diagnostiko berria egingo du, III. Berdintasun Plana diseinatu ahal izateko. Diagnostiko hori 2020ko martxoan hasi zen egiten, baina prozesua eten egin zen ustekabeen eta bat-batean Covid-19a iritsi zelako, eta horrek baldintzatu egin du hainbat proiekturen bilakaera.

Azkenik, 2021eko martxoan onartu zen plana, alde guztien adostasunarekin. Hala ere, egindako barneko zein kanpoko komunikazio guztietan hizkuntzaren erabilera inklusiboa erabiltzeko ahalegina egiten jarraitu da, erabilitako irudiei ere garrantzia emanda.

2024an zehar, Berdintasun Batzordea 6 aldiz bildu da. Jarraian, egindako ekintza nagusiak zehaztuko dira:

- Martxoaren 8arekin bat eginda, langile guztientzako ohar bat argitaratu zen, 2023an egindako ekintza nagusien berri emateko.
- Ordainsarien erregistroa egin da.
- Enpresa Batzordeko kide diren langileei berdintasunari buruzko prestakuntza eman zaie.
- Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunaren inguruan, azaroak 25, informazio ohar bat argitaratu zen, berdintasuna@dbus.es helbide elektronikoa plantilla osoaren esku jarritz, Berdintasun Batzordeari iruzkinak, kexak, iradokizunak edo hautemandako puntu kritikoak helarazi ahal izateko, erabateko konfidentzialtasunez.
- Enpresan dauden kontziliazio neurriez baliatzen diren langileen gaineko datuak jaso eta aztertu dira, genero ikuspegitik. Azpimarratzekoa da lanaldi murrizketa dela Dbuseko langileek gehien erabiltzen duten kontziliazio neurria. Azpimarratzekoa da 2024an lanaldi murrizketak %22,58 gehiago izan direla, 2023koekin alderatuta, taula honetan ikus daitekeen moduan:

	2023	2024
EMAKUMEAK	11	18
GIZONAK	82	96
GUZTIRA	93	114

2024ko martxoaren 4an, Dbusek, garraio publikoko 8 operadorekin batera, lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuen, ekimenari atxikitako 8 erakundeetako bateko kide izan eta genero indarkeriaren biktima diren langileen enpresen arteko mugikortasuna errazteko. Dbusez gain, hauek dira hitzarmenarekin bat egin duten enpresak: Ferrocarrils de la Generalitat de Catalunya (FGC), TUGSAL, Emtusa, Alsa, TRAM, Sagales eta Vectalia.

2024an bitan elkartu da Atuceko Mugikortasun eta Genero Batzordea: apirilean Valentzian, eta urrian DTKren egoitza sozialean.

Berdintasuna sustatzeko BAI SAREAn parte hartzea

2018az geroztik **DTK BAI SAREako kidea da**, hau da, lan eremuan berdintasuna bultzatzeko eta bermatzeko helburuarekin Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatuta **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako lankidetzaz erakundeek** osatutako sareko kidea.

Sarearen helburua da erakundeek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari lotutako **esperientziak, tresnak eta metodologiak partekatu ahal izatea**.

2024an Konpainiak BAI SAREAk antolatutako ekintza guztietan parte hartzen jarraitu du, bereziki “Gune Seguruei” buruzko lantaldean.





06

Konpromiso soziala



DTK-k hainbat kausa soziali ikusgarritasuna eta lekua ematen jarraitu du, Dbusen autobusek erakusteko aukera zabala ematen baitu, egunero-egunero hiriko txoko guztietatik dabilta eta.

Gizarte ekintza

2024an Dbusek hainbat elkarte eta talde sozialekin batera aritu da elkarlanean.

Hauek dira 2024an egindako lankidetzen lagin txiki bat:

- Hiesaren aurkako Borrokaren Munduko Eguna.
- Smith-Magenis sindromearen Nazioarteko Eguna.
- Bularreko Minbiziaren aurkako Munduko Eguna.
- Gaixotasun Erreumatikoen Nazioarteko Eguna.
- Ikusmenaren Munduko Eguna.
- Minbiziaren aurkako Munduko Eguna.
- Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna.
- Pobrezia Errotik Ezabatze Nazioarteko Eguna.
- Gaixotasun Arraroen Munduko Eguna.
- Linfedemaren Nazioarteko Eguna.
- Haurren kontrako Tratu Txarren aurkako Nazioarteko Eguna.

Eskaripeko geldialdien sistema emakumeentzat

Udan, hiriko ekitaldiak eta jaiak berriro egiten hasi zirela-eta, 2019an ezarri zen eskaripeko geldialdien sistemaren kanpaina egin eta bultzatu da berriro. Zerbitzu horrekin, Dbusek eskaripeko geldialdien sistema eskaintzen du gautxori linea guztietan, emakumeentzat eta 18 urtetik beherakoentzat. Zerbitzua ostiral, larunbat eta jai bezperetan ematen da, bai eta gaueko zerbitzuak indartzea eskatzen duten ekitaldietan ere.

Donostia izan zen zerbitzu hori ezarri zuen lehen hirietako bat, 2018an zerbitzua B8-Mirakontxa-Benta Berri-Seminarioa linean ezarrita, eta, hilabete batzuk geroago, gaueko gainerako lineetara zabaldu zuen.



Harreman zuzena elkarteekin

Dbuseko autobusen irisgarritasuna maximizatzeko helburuarekin eta hiritar gehienei garraio publiko erabilgarri eta eraginkorra eskaintzeko helburuarekin, **Dbusek mugitzeko premia bereziak dituzten pertsonen elkarte batzuekin harreman zuzena dauka**, hala nola ELKARTUekin (Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea), GIELMAREkin (Gipuzkoako Elbarriak Martxan) eta ONCEREkin. Gainera, aurtun Dbus **Donostia Lagunkoia**

programaren parte izan da. Programa horrek adinekoen bizi kalitatea hobetzeko eta hiria leku lagunkoiago egiteko lan egiten du.

Horrez gain, DTK-k **harreman zuzena eta etengabea du** Donostiako auzoetako **bizilagunen elkarteekin**, lehen eskutik ezagutzeko inguru bakoitzean mugikortasunaren esparruan dituzten beharrak eta egun jasotzen duten zerbitzuaren alderdi guztiei buruzko balorazioa.



07

Ingurumena



Dbuseko autobus sarearen erabilera masiboa da DTK-k ingurumenaren hobekuntzarako egiten duen ekarpen nagusia; izan ere, autobusak erabiltzen dituzten pertsonak beraien ibilgailua erabiliko balute joan-etorrietarako, askoz ere erregai gehiago kontsumituko litzateke.

Konpainiak kontzientea da Dbusen jarduerak erregaiaren kontsumoa dakarrela, eta, beraz, bere flota elektrifikatzeko etengabeko prozesu batean murgilduta dago, energia iturri alternatiboen eta ibilgailu ekologikoagoen aldeko apustua eginez. 2024ko azaroan, Dbusek Bideberdea: etorkizun %100 elektriko eta jasangarrirantz izeneko proiektua aurkeztu zuen, 2030erako 12 eta 18 metroko autobus flota guztia %100 elektrikoa izan dadin.

Era berean, DTKn efizientzia lortu da bai zerbitzuaren kudeaketan, bai hondakinen erabileran zein deuseztapenean.

Bestalde, **Dbizi** bizikleta publikoaren sistema ezartzea ere laguntza handia da ingurumena zaintzeko.

Gainera, Dbizi bizikleta publikoaren sistema ezartzea ere laguntza garrantzitsua da ingurumena zaintzeko. Bi garraiobideak osagarriak dira eta mugikortasun jasangarriko eskaintza zabaltzen laguntzen dute, hiri eredu garbiago, osasungarriago eta ingurumena errespetatzen duena bultzatuta.

Flota


Gaur egun Dbusek 18 metroko 37 autobus artikulatu, 12 metroko 91 autobus eta 11 mikrobus ditu bere autobus flotan

Flotaren batez besteko adina 9,641 urtekoa da orain. Halere, aurreikuspena da 2025ean batez besteko adina urte bat jaistea, eta 2026an beste urte bat gehiago murriztea, azkenean 6,5 urte ingurukoa izateko.


Hori horrela da 2022an autobus elektrikoaren lehen sortaren erosketa esleitu zelako, eta zero emisioko flota %100 elektrikora behin betiko trantsizioa egiten hasten zela esan nahi zuen.

Hurrengo grafikoetan autobusek azken urteetan izan duten bilakaera ikus daiteke: Euro 3 dira zaharrenak eta Euro 6 modernoak. Aurreko urteetako flotarekin alderatuta, 2024ko ibilgailuek askoz gutxiago kutsatzen dute. Hurrengo grafikoan ikus daiteke hori.


2024ko flota, teknologiaren arabera



2014: Dbus flota emisioen arabera




2024ko flota, Euro emisioen estandarraren arabera



2024an, zerbitzua ematen duen flotaren %100 Euro 4tik gorakoa dago, eta flotaren %69 Euro 6ren gaineretik dago jada. Autobus horiek une honetan diesel teknologiarako dauden autobusik garbienak dira, eta gas naturala (GNC) erabiltzen duten ibilgailuekin pareka daitezke.

Hurrengo grafikoan 2014az geroztik egin den aurreko trantsizioa irudikatzen da, eta ikusten da emisio kutsagarrien estandarrak dituzten autobus dieselak nabarmen desplazatu dituztela autobus modernoek, isilenak eta ingurumena gehien errespetatzen dutenak baitira.

Dbus: Euro Standard Evolution




Emisioen murrizketa

Erregai fosilaren kontsumoa eta, beraz, egindako kilometro bakoitzeko gas emisioak ere nabarmen murriztu dira Dbusen azken urteetan, honako faktore hauei esker:

- Gutxiago kutsatzen eta kontsumitzen duten ibilgailuak eskuratzea.
- Lineen kudeaketa eraginkorra eta bideen azterketa, kilometroei dagokienez ibilbiderik eraginkorrenak egiteko.
- Erregai kontsumoaren kontrol zorrotza, ibilgailuetan eta ibilbideetan hobetu beharreko alderdiak hautemateko.
- Gidariari laguntzeko sistema berritzaile bat erabiltzea, seguru eta efizientziaz gidatzeko (EKObus proiektua).

Era berean, 2024an batez beste 0,46 litro erregai kontsumitu dira ibilitako kilometroko, hiri garraioen sektoreko kontsumorik txikienetako bat. Batez besteko kontsumo hori, gainera, nabarmen jaitsi da 2013az geroztik. 2023an, halere, aurreko urtearekin alderatuta izan duen gorakada txiki hori faktore bat baino gehiagoren konbinazioagatik izan da. Faktore horietatik nabarmentzen dira 2022an flota berritu ez izana eta udako hilabeteetan batez besteko tenperaturak igo izana, klimatizazioa gehiago erabiltzea ekarri baitzuen. Elektrifikazio masiboaren hasierak murrizketa islatzen du jada 2024an, eta hurrengo urteetan datu honen jaitsiera drastikoa ziurtatzen du.


Urteko batez besteko kontsumoa (l/100km)



Kontsumoa murrizteak kilometroko CO₂ emisioak gehiago murriztea ere ahalbidetu du azken urte hauetan. Murrizketa horrek bultzada nabarmena eduki du 2015. urteaz gero, flotan sartutako ibilgailu hibrido eta elektrikoei esker.

Flotaren eraginkortasunaren ondorioz gasolioaren kontsumoak behera egiten jarraitzen duen heinean, berotegi efektuko gasen (CO₂) emisioak ere murriztu egiten dira.


CO₂ emisioak (g/km)



Tokiko kutsatzaileen emisioak

Horrez gain, ibilitako kilometro bakoitzeko gas kutsatzaileen emisioak pixka bat murrizten jarraitzea lortu da, grafiko honetan ikus daitekeen moduan:

Tokiko emisioak 2014 -2024



Berotegi efektuko gasen emisioak murriztera zuzendutako ekintza guztiek eragin handia dute klima aldaketaren eta tokiko kutsaduraren aurkako borrokan.

Dbusen azken urteotan garatu den guztia eta gas emisioen kudeaketan eta efizientzian lortutako hobekuntza ere inbertsio handi baten emaitza izan dira, eta inbertsio hori Europar Batasunak diruz lagundutako proiektuen ekarpenei esker egin ahal izan da.

Esan daiteke, baita ere, azken urteetan erregai alternatiboetan eta ingurumeneko kutsadura murrizteko bideetan aditu diren nazioarteko pertsona batzuek Dbus autobusen isurketen maila neurtu dutela eta balorazio bikaina eman diotela, beren autobusek ingurumenara egiten dituzten CO₂ eta partikulen isurketen maila txikia delako.

Energia aurrezpena


Autobusetarako erregaien kontsumoa alde batera utzita, tailer eta bulegoetako jardueretan kontsumitzen den energia da DTK-ko beste energia iturri nagusia. Hemen ere Konpainiak ahalegin handiak egiten ditu energia kontsumoa murrizteko edo energia iturri berriztagarriak erabiltzeko, bai eta uraren kontsumoa

murrizteko ere. DTK-k, halaber, efizientziaz kudeatzen ditu berak sortzen dituen hondakinak, ahalik eta inpakturik txikiena lortzeko. Kontsumitutako energiari dagokionez, hauek dira datu nagusiak:

URTEA	2023	2024
ENERGIA	kWh	kWh
ELEKTRIZITATEA	708.820	846.042
GASA	330.904	438.913
GUZTIRA	1.039.724	1.284.955

Hurrengo grafikoan ikus daiteke urtean kontsumitutako energiaren murrizketaren bilakaera.

Energia elektrikoaren kontsumoa Dbusen (kWh)



2008an, 30 kW-eko potentziako panel fotovoltaikoak jarri zituen DTK-k instalazioetako teيلاتuan. Paneletan ekoizten den energia Donostiako sare nagusira bideratzen da. Horrela, energia aurrezten da gizartean, energia berriztagarrien bitartez energia sortzen delako. 2024an, eguzki plakek 26.883 kWh sortu dituzte. Aurten ekoizpena jaitsi egin da aurreko urteekin alderatuta, elektrifikazio obra dela-eta teيلاتuko oinezkoen teيلاتaren gainean jarritako eguzki plakek desmuntatu direlako, eta plakek bulegoen eraikinaren estalkian

berriro muntatu arte hilabete batzuk igaro direlako. Oso datu garrantzitsua da, autobus elektriko batek urte batean erabiltzen duen energiaren %50 baino gehiago baita.

Gainera, 2022az geroztik DTKren instalazioetan kontsumitzen den eta ibilgailu %100 elektrikoak kargatzeko erabiltzen den elektrizitatearen %100 iturri berriztagarrietatik dator.

Energia Kudeaketari Buruzko ISO 50001 Arauaren Inplementazioa

2020an Energiaren Kudeaketarako Sistemaren UNE-EN ISO 50001 araua internazionala ezarri zuen DTK-k, baliabide energetikoak modu efizientean erabiltzen utziko dion tresna bat edukitzeko eta horren bidez Konpainiaren energiaren kontsumoa eta emisio kutsatzaileak murrizteko. Konpainiak garatzen dituen jarduera, operazio edo zerbitzu guztiei aplikatzen zaie, baita Konpainiaren flotari ere, energia modu egokian kudeatzen dela bermatzeko.

AENORek ziurtatu du arau berri horren ezarpena, eta Konpainiaren jarduera guztietan erabiltzen den energiaren iraunkortasunarekiko eta efizientziarekiko konpromiso etengabearen adierazgarria da. 2024ko azaroan energia efizientzia kudeatzeko sistemaren jarraipenerako lehen auditoria egin du AENORek.

Arau horren barruan sartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Jasangarritasun Energetikoaren Legeak

ezartzen dituen helburuak. Legea 2019ko otsailean onartu zen, Eusko Legebiltzarrean, eta euskal administrazio publikoetako eta sektore pribatuko eraikinei, instalazioei eta ibilgailuei aplikatu beharrekoa da.

Arauaren aplikazioak helburu eta onura hauek aurreikusten ditu:

- Baliabideak modu efizienteagoan kontsumitzen laguntzen du, baliabideak etengabe monitorizatuz. Kontsumo efiziente horrek, aldi berean, kostuak murriztea dakar.
- Baliabide energetikoen kudeaketan gardentasuna egotea errazten du.
- Energia efizientziarako teknologia berrien ezarpena ebaluatzen eta lehenesten laguntzen du.
- CO₂ emisioak eta beste emisio kutsatzaile batzuk murriztea ahalbidetzen du.
- Energiaren kudeaketan egoki jardutea bultzatzen du.
- Hornidura kate osoan energiaren aldetik efiziente izateko esparrua eskaintzen du.
- Konpainiak energiari buruzko lege betekizun guztiak betetzen dituela bermatzen du.

DTK enpresa aitzindaria da kalitate irizpideak lehenetsuntzat ezartzen. Euskal Herrian Bidaiaren Garraio Publikoari buruzko UNE-EN 13816 arauaren arabera AENOR ziurtagiria lortu duen lehen garraio enpresa da, eta arau berria ezarrita zerbitzuaren kalitatea ez ezik energiaren kudeaketa ere bermatzen du.



Laneko Segurtasun eta Osasunaren Kudeaketari Buruzko ISO 45001 Arauaren Inplementazioa

2022an, DTK-k Laneko Segurtasuna eta Osasuna Kudeatzeko Sistemaren ISO 45001 araua inplementatu zuen, Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan Legeak ezarritako aginduak betetzea eta Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistemaren jarduna etengabe hobetzea ahalbidetuko duen tresna bat edukitzeko. Konpainiak garatzen dituen jarduera, operazio edo zerbitzu guztiei aplikatzen zaie, baita Konpainiaren flotari ere, Lan arriskuen prebentzioa modu egokian kudeatzen dela bermatzeko.

AENORek ziurtatu du arau berri horren ezarpena, eta erakusten du enpresak Laneko Arriskuen Prebentzioarekin duen konpromisoa etengabea dela.

2024ko azaroan energia efizientzia kudeatzeko sistemaren jarraipenerako bigarren auditoria egin du AENORek.



Arauaren aplikazioak helburu eta onura hauek aurreikusten ditu:

- Prebentzioaren arloan aplikatzekoak diren lege eta erregelamenduetan ezarritako agindu guzti-guztiak eta erakundeak izenpetzen dituen beste betekizun batzuk ere betetzea.
- Lan baldintza seguruak eta osasungarriak ematea, lanarekin lotura duten osasun kalteak eta narriadurak prebenitzeko.
- Istripu eta gaixotasun profesionalen arriskuak murriztea edo desagerraraztea.
- Langileen segurtasunerako eta osasunerako arriskuak kontrolatzeko sistema bat ezartzea
- Erakunde osoak prebentzioko baldintza eta lege baldintza guztiak betetzeko konpromisoa hartzea lortzea, langileen informazioaren, prestakuntzaren, kontsultaren eta parte hartzearen bidez.
- Erabilitako prozesuak, teknikak eta lehengaiak aztertzea, eta langileei arrisku gutxien sortzen dizkietenak aukeratzea.
- Prebentzio jarduerak garatzeko behar beste baliabide esleitzea.
- Laneko arriskuen prebentzioaren arloan kultura positiboa sortzea.
- Langileen eta langileen ordezkariak LAPa kudeatzeko sistemaren erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea sustatzea.


Instalazio efizienteak

2003an Kotxetegi berriak inauguratu ziren. Instalazio modernoagoak dira, eta autobus belaunaldi berriaren premiei erantzuteko eta flotaren kudeaketa egiteko egokiak dira. Eraikinak 4.500 m² ditu tailerrera, eta 1.000 m² bulegoetarako. **Dbuseko 141 ibilgailuetarako** aparkalekua ere badu.

Dbusek egunero egiten du flota berrikustea eta tailer espazioan flotaren eraginkortasuna konpontzeko eta hobetzeko ekintzak egiten ditu. Horretarako, langile trebatuak eta instalazio modernoak ditu, eguneroko konponketa eta mantentze lanak egiteko aukera ematen diotenak, autobusak ahalik eta baldintza onenetan irten daitezen egunero zerbitzua ematera..

Tailerreko instalazioek elementu hauek dituzte:

- 18 m-ko autobus artikulatuetarako 2 plataforma jasotzaile.
- 12 m-ko autobusetarako 3 plataforma jasotzaile.
- 24 jasokuntzako zutabe.
- 11 lanpostu.
- 2 autobus hartzeko karrozeria gune 1.
- Altuerako lanetarako 4 bizi lerro.
- 2 lerro, erregai hornidurarako 2 (Biodiesel bi hornigailu nahasgailu eta AdBlueko hornigailu bat) eta garbiketarako (garbiketarako bi zubirekin)
- Gurpilak konpontzeko eta biltegitratzeko gunea.
- Biltegia.



Hondakinen kudeaketa

DTKren asmoa da eguneroko jardunean sortzen dituen ura eta hondakinak birziklatzea. Konpainiak ingurumenarekin lotutako arlo guztiekin kezkatuta dagoenez, hondakinen birziklatzea eta gestioa funtsezko gaiak dira berarentzat. Hori dela eta, bere hondakin guztiak baimendutako eta egiaztatutako enpresen eskuetan uzten ditu haiek gero hondakin horiek kudeatu eta birzikla ditzaten.

Ondorengo taulan ikus ditzakegu hondakin birziklagarrien kudeaketari buruzko datu esanguratsuenak.

HONDAKIN BIRZIKLAGARRIAK	2023KO TONAK	2024KO TONAK 2024
HONDAKIN LIKIDOAK	44,09 tn	40,36 tn
HONDAKIN SOLIDOAK	5,72 tn	4,05 tn
GUZTIRA	49.81 tn	44,41 tn



Birziklatutako ura iragazkietatik pasatu ondoren, hondakin eta zabor guztiak depositu batzuetan gordetzen dira eta depositu horiek betetzen direnean baimendutako enpresak bildu egingo ditu. Olioak eta erabilitako gainontzeko hondakinak antzera egin ohi da. Olioak eta gainerako hondakinak erretiratu ondoren, pilatu egiten dira baimendutako enpresak hartu eta gestionatu eta birziklatzen dituen era arte.

Azpimarratzekoa da azken urtetan ez dela egon ingurumenean eragina izan duen inolako ihes edo isuri garrantzitsurik.

08

Parte hartzea eta esperientziak trukatzea



DTK-k hainbat foro eta lantaldetan parte hartzen du modu aktiboan, eta garraio publikoko eta hiriko mugikortasuneko profesionalekin esperientziak trukatzeko dituen.

Foroak eta lantaldeak

2024an DTK-k hainbat jardunaldi, foro eta lantaldetan hartu du parte modu aktiboan, bai modu presentzialean, bai online formatuan..

Dbusek 17 garraio operadore elkartu ditu Donostian

Maiatzaren 23an eta 24an, Dbus ATUC-Hiri eta Metropolitiko Garraio Publikoen Elkartearen Teknologia Berri, Marketin eta Kalitate Batzordearen anfitrioiak izan da.

Jardunaldi horietan hainbat hiritako 17 garraio operadoretako ordezkariak parte hartu dute, besteak beste Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla, Malaga, Kanaria Handia, Palma eta Tenerifeko ordezkariak. Horrez gain, ekitaldiak garraio publikoaren sektorean espezializatutako **enpresa teknologikoen** laguntza izan du.

“Negozio aukera berriak: 5G sare pribatuak” ekitaldian parte hartzea

Dbusek, abenduan, **“Negozio aukera berriak: 5G sare pribatuak” jardunaldian** parte hartu du.

Ekitaldian, Dbusek mahai inguru batean parte hartu du 10 autobusetan 5G teknologia inplementatzen duen esperientzia partekatzeko. Ekimen horri esker, alde batetik, erabiltzaileentzat eskuragarri dagoen wifi konexioa hobetu da, eta bestetik, autobus barneko bideozaintza sistema modernizatu da. Aurrerapen horri esker, Dbus erreferentzia da estatuan garraio publikoan 5G konexioa ezartzeari dagokionez, **bere ibilgailuetan teknologia hori instalatu duen lehen mugikortasun operadorea** baita.

Dbusek “5G Euskadi” proiektuan parte hartu du eta horri esker inplementatu da 5G teknologia, proiektuaren helburua baita Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa eta zentro teknologiko nagusien berrikuntza eta eraldaketa industrial bultzatzea.



DTK-REN BISITAK

Gaur egun DTK garraio enpresen erreferentzia da nazioartean, bere kudeaketagatik eta bere autobus flotan ezarri dituen teknologia berriengatik. Horren adibide dira urtero, Dbusek egindako aurrerapen berriak ikusi eta begiztatzeko asmoz, Espainiatik zein atzeritik Konpainiara datozen bisitak.

2024an, Dbusek hainbat bisita jaso ditu, eta horietan partekatu ahal izan ditu eskuratutako know-howa eta etorkizuneko proiektuak. Bereziki nabarmentzekoak dira honako bisita hauek:


Man Truck & Bus-en Turkia, Alemania eta Espainiako ordezkariak

Dbusek MAN Truck & Bus-en Turkia, Alemania eta Espainiako ordezkarietako talde baten bisita jaso du. Autobus elektrikoen produktu eta garapeneko ingeniariak osatzen zuten taldea. Lan jardunaldi hori Kotxetegietan egiten ari den elektrifikazio prozesuaren barruan egiten da.



Gipuzkoako Foru Aldundiko Proiektu Estrategikoetako Departamentuko ordezkariak bat

Bisitan, Dbuseko zuzendaritza taldeak martxan dagoen elektrifikazio proiektua aurkeztu du, flota %100 elektriko bat lortzea helburu duena, eta 2025ean 12 metroko autobus guztiak hibridoak edo elektrikoak izatea aurreikusita dago. Halaber, ordezkariak azken urteetan inplementatutako berrikuntza teknologikoak ezagutu ditu, hala nola **okupazioak kontrolatzeko sistema, eskaera iragartzeko sistema eta gidatzen laguntzeko Ekobus sistema. Zerbitzua optimizatzeko, geltokien sentzorizazioan eta big dataren erabileran egindako aurrerapenak ere aurkeztu dira, bai eta bidaiarien jatorri-helmuga matrizearen eraikuntza ere.**



Euskal Herri-Aturri Mugikortasun Sindikatuko ordezkariak tekniko bat

Dbusek Euskal Herri-Aturri Mugikortasun Sindikatuko (SMPBA) teknikariek osatutako ordezkariak baten bisita jaso du bere instalazioetan. Zuzendaritzak Konpainia buru-belarri gauzatzen ari den elektrifikazio proiektua aurkeztu du, **flota deskarbonizatzea eta 0 emisioko flota bihurtzea** ahalbidetuko duena. Era berean, ibilgailu elektrikoak kargatzeko prozesuak optimizatzeko proiektua ezagutu ahal izan dute.



Gipuzkoako Ingeniarien Elkargo Ofizialaren bisita

Dbusek Gipuzkoako Ingeniarien Elkargo Ofizialaren ordezkariak baten bisita hartu du bere instalazioetan. Ingeniarien Elkargoak programatutako lehen bisita da. Bertan, flotan ezarritako zenbait sistema eta teknologia berritzaile aurkeztu ziren, hala nola **autobusen okupazioak kontrolatzeko sistema, eskaria iragartzeko sistema eta gidatzen laguntzeko Ekobus sistema.**



09

Nortasun bisual korporatiboa



Nortasun bisual korporatiboak lagundu behar du irudiak transmititzea nahi duguna adierazten. Enpresa, sinadura edo denda batek bere burua jendaurrean aurkezteko duen modua da.

DTKren irudi korporatiboaren helburua da berak proposatzen duen konpromiso eta balioarengatik ezaguna eta baloratua izatea, eta ez soilik bere zerbitzuen bidez eskain ditzakeen onurengatik. Dbusen eta Dbiziren balioak eta helburuak elkarrekin bizi dira.

Dbizi sistema berria Konpainian integratu da autobus garraio publikoarekin batera bizitzeko, bai funtzionatzean, bai ematen duen irudian.

2004an Dbusek bere irudi korporatiboa modernizatu zuen, logotipotzat Euskal Herriko hegoaldeko zuhaitz igela hartuta, eta izen komertzialtzat Dbus izena.

2024an, autobus elektrikoak iritsi zirenean, Dbusek grafika diseinu berri baten aldeko apustua egin zuen.

Dbiziri dagokionez, sistemaren irudi korporatiboa 2019an sortu zen, nahiz eta markaren garapen osoa eta horren ondoriozko aplikazioak ez ziren 2020aren amaierara arte osatu.

Euskal Herriko hegoaldeko zuhaitz igela

Dbusen irudia da 2005az geroztik . Desagertzeko arriskuan dagoen animalia da, baina Donostiako alde batzuetan oraindik ere existitzen da. Europan dauden anfibiorik txikienetako bat da, espezie horretako animalia helduak gehienez 5-6 cm-koak dira eta. Gorputzaren kolorea berde argi eta distiratsua da, nahiz eta kolorearen tonua ez den berbera zonalde guztietan. Batzuek puntu txiki beltz batzuk dituzte bizkaraldean.



Donostiako udalaren irudi berria txertatzea

2017an Donostiako Udalak bere irudi korporatiboa modernizatu zuen, hiriaren harmarri ofiziala oinarri hartuta, baina tratamendu sinplifikatuago eta garbiagoarekin. Irudi berria hiriaren hain bereizgarriak diren koloreetan oinarritzen da, hau da, urdin eta zuri koloreetan. Erabiltzaileekiko komunikazioa hobetzeko,

2017ko uztailean Dbusek Udalaren irudi korporatiboa sartu zuen bere logoan. Horrela, egun duen hegoaldeko zuhaitz igelaren logoa eta Udalaren logo berria batera egongo ziren, eta agerian geratuko zen Dbuseko zerbitzua udalaren garraio zerbitzua dela.

Dbus

2004an Dbusek bere irudi korporatiboa modernizatu zuen, logotipotzat Euskal Herriko hegoaldeko zuhaitz igela hartuta, eta izen komertzialtzat Dbus izena. Era berean, diseinuan urdina eta berde koloreak sartu ziren. Urdina Donostiari lotutako kolorea da eta berde koloreak, berriz, Dbusek ingurumena hobetzen egiten

duen ahalegina agerian jarri nahi du. Azken hamarkadan Dbuseko irudi korporatiboa sendotzen joan da eta oso marka ezaguna bihurtu da, bai maila lokalean bai kanpoan, Europako proiektu askotan parte hartzeagatik eta Estatuko eta nazioarteko erakunde askorekin elkarlanean aritzeagatik.

Grafika diseinu berria autobus elektrikoetan

2024an autobus %100 elektrikoak iritsi zirenean, Dbusek konpainiaren nortasun bisualaren diseinuari beste buelta bat eman nahi izan zion. Logotipo berriak igelaren esentzia mantentzen du, baina diseinu dinamiko batekin eta kolore ukitu batekin, irudi eta giro erakargarriagoa sortuta.

Logotipoa zirkulu baten barruan integratu da, orri batekin, jasagarritasuna, batasuna, natura eta bizitza

transmititzeko. Horrela, diseinu berriak balio du erabiltzaileari transmititzeko autobus desberdin batean dagoela, ingurumenean jasagarri den autobus batean dagoela.

Gainera, autobus berri horiei guztiei **Dbus ZERO** izena jarri zaie, eta izen hori dute errotulazioan, ibilgailu %100 elektriko direla eta mugikortasun jasagarriarekin konprometuta daudela azpimarratzeko.





Dbizi

Logotipoa

Marka osatzen duten letrak Dbizirako bereziki diseinatuta daude. D eta B elkartzen dira, B letraren mugak definitzeko eta letra agertu gabe irakurri ahal izateko.

Oso elementu gutxiko sinboloa da, inpaktu bisual handia eragiteko eta erraz gogoratzeko. Kolore masako eremu handi bat du, espazio txikietan dagoenean eta neurri txikietan aplikatzen denean agerikoa izan dadin, eta zuriaren pertzepzioa errazten du, hutsaren, positibotasunaren eta infinituaren marka argitsua sortzen baitu. Sinboloa 90° jiratuta, iribarre bat lortzen dugu zuzenean eta argi eta garbi.

Dbiziren markaren kolore korporatiboen konbinazioa Dbusen kolore korporatiboen berdinak dira, eta, horrela, bilatzen den integrazioa eta homogeneotasuna lortzen dira.

Donostiako garraio iraunkorrari lotutako koloreak dira: berdea eta urdina.

dbizi

dbizi







DTK

Donostiako Tranbia
Konpainia

Fernando Sasiain, 7
20015 Donostia/San Sebastián
943 000 200
info@dbus.eus

www.dbus.eus